Bergarako astekaria

# Berrigara



## Txakurtegia

### Kalean lagatako txakurrak batzen

MECA BERGARA

amillaga 5
BERGARA
943 76 40 68

35 urte
baino
gehiagoko
esperientzia



Zorionak
eta urte berrirako gure
asmo onenak!

RENAULT



# VENTANAS SAN MIGUEL

Ibargarai 4 Tf. 943 76 12 21 Bergara
Iturrioz 24 Tf. 943 79 78 10 Arrasate
Errioxa 17 Tf. 945 25 88 92 Gasteiz

*Zure ongizatea babesteko gaude*



**902 202 502**

VENTANAS SAN MIGUEL

- SALDUOSTEKO ZERBITZUA (URTEBETE DOAN).
- NEURRIRA EGINDAKO LEIHOAK.
- EREDU ETA MOTA GUZTIETAKOAK.
- AHOLKULARITZA TEKNIKOA ETA KONPROMEZURIK GABEKO AURREKONTUA.
- 30 URTEKO ESPERIENTZIA ETA 100.000 BEZEROTIK GORA IZATEA DIRA GURE BERMEAK



# GUIPUZCOANA

Paketeen garraio eta banaketa

EURODIS

PAKETERIA ZERBITZU EGUNEROKOA

- Elkarte europarrera
+
- Suizara,
- Noruegara,
- Poloniara eta
- Hungariara

**BERGARA**

**Tf.: 76 36 42**
Faxa: 943 76 54 25
San Juan auzoa z/g
20570 Bergara



# Gabonetarako presoak etxera

**Ainhoa Agirreazaldegi** / Bertsolaria

Gabonak. Batzuentzat ederrak, besteentzat ez hain onak. Zer pentsatuko du gabon izpirituaz, etxetik hain urruti egotera behartuta dagoenak?

Familia askotan irudi berbera errepikatuko da: denok batera, elkarri kontu kontari, txisteak kontatuz, euskal kanta zaharrak kantari... Olentzeroren zain. Baina familia askori tristura antzemango zaie begietan, kontu eta kantuek etxeko hutsunea areagotu baino ez dute egingo eta Olentzerok ez du aurkituko bere opariak nori emanik. Ez behintzat aurtengoan gauzak alda daitezen gogoz eskatzen ez badugu.

Azken hiru hamarkadetan familia asko eta asko izan dira Euskal Herrian Gabonak alai, gustura, sendi osoaren batasunean igaro ez dituztenak. XXI. mendearen atarian gaude, eta munduak hainbat aurrerapen ezagutu dituen urte hauetan guztietan, euskal presoekin ez da legeak dioena betetzen. Aita, ama, senar, emazte, anai-arreba, seme edo alabaren bat (edo bat baino gehiago) falta izan zaie familia askori urte hauetan. Aurtengoa ezberdina izan daiteke, eta hori gure esku dago. Euskal presoak etxera hurbil ditzakegu hortarako borroka egiten badugu.

Guztiok dakigu zein gogorra den, garai hauetan bereziki, etxekoren bat urruti izatea. Batzuentzat besteontzat baino bereziagoak izango dira. Gabonak, baina guztiok daukagu etxetik gertu egoteko eskubidea. Benetan bihotz samurragoa badaukagu honelako egunetan, eta norberaren alaitasun eta batasuna apreziatzen badugu, aldarrika dezagun ez dutenak izateko duten eskubidea, guztion zoriontasunarekin herri osoa izango baita zoriontsuago.

*"Bihotzeko hutsuneak salatu ditzagun gure etxeko balkoietan, herritarrak urrun dauden artean gure ametsak Olentzerok ezin beteko dituela adieraziz"*

Bihotzeko hutsuneak salatu ditzagun gure etxeko balkoietan, herritarrak urrun dauden artean gure ametsak Olentzerok ezin beteko dituela adieraziz.

Besarkada handi bana preso guztiei, eta eutsi goiari. Gabon hauetan turroia etxean probatu behar duzue eta. Inoiz ez bezain goxoa izango da aurtengoa.

Gabonetarako Euskal Presoak Euskal Herrira B

## barruan



**Ignacio Telleria**
HIES Ekimena taldeko kidea

***"HIESaren inguruko gaietan emakumea nahiko baztertuta dagoela uste dut***

3. orrialdean.



**Edurne Zabaleta**
Xake taldekoa

***"Xakea zientzia eta kirola dela uste dut; profesionalak, fisikoki ondo prestatzen dira"***

21. orrialdean.



**Yasone Zangitu**
Zangitu margo dendakoa

***"Loterian 500 milioi irabaziz gero, bidaiatu eta kostaldean txaleta erosiko nuke"***

29. orrialdean.

# orain dela...

**BERGARAN GERTATUA**

***1904.*** Abenduaren 12an Batzokia zabaldu zen. Bergarako Eusko Batzokiyak, hasiera batean, jolas edo laketzeko izaera izan zuen. Nazionalismo jaio berriak garatze-bidean mota guztietako oztopoak aurkitu zituen.

**EUSKAL HERRIAN GERTATUA**

***1495.*** Abenduaren 11n Bilbo eta Sondika arteko bakea sinatu zen.

***1895.*** Abenduaren 9an Dolores Ibarruri "Pasionaria" komunista jaio zen Gallartan.

**MUNDUAN GERTATUA**

***1813.*** Abenduaren 8an Behethoven-en 7. Sinfonia estreinatu zen.

***1980.*** Abenduaren 8an John Lennon kantaria hil zuten New Yorken.

***1983.*** Abenduaren 7an Barajaseko aireportuan, Iberiaren Boeing 727 eta Aviacoren DC 9 hegazkinek aurrez-aurre jo zuten eta 93 lagun hil ziren.

***1991.*** Abenduaren 10ean Maastricht-eko ituna sinatu zen.

## zozketak

**BONO LOTO**

**Eguakitza 4**
3-11-21-23-34-47 (osag.13/er.6)

**Astelehena 7**
2-8-11-27-41-49 (osag.25/er.4)

**Martitzena 8**
6-12-16-18-22-35 (osag.7/er7)

**Eguaztena 9**
13-16-32-33-36-38 (osag.2/er.4)

**PRIMITIVA**

**Zapatua 5**
9-11-24-29-30-40 (osag.12/er.7)

**Domeka 6 *Gordoa***
1-8-22-31-39-40 (osag.27/er.8)

**ONCE**

**Eguakitza 4:** 69.162 (K. seriea: 122)
**Astelehena 7:** 48.759
**Martitzena 8:** *Jaieguna*
**Eguaztena 9:** 18.097

## Eguraldia

*Igeldoko metereologi behatokia*

Urdinguneak nagusituko dira astebukaera honetan, tarteka zeruan hodeiak agertuko bazaizkigu ere, batez ere goiz partean. Giro epela izango dugu, tenperaturak gora egingo du eta. Haizeak hegotik joko du.

## Ilargiaren aldiak

Ilbehera: abenduak 10
Ilberri: abenduak 18
Ilgora: abenduak 26
Ilbete: urtarrilak 2

## Eguzkia

*Domeka, abenduak 13*

Sortu: 08:31
Gorde: 17:51

## Tenperaturak eta euria Bergaran

*Luis Mari Agirre*

| | max. °C | min. °C | *euria l/m²* |
|---|---|---|---|
| **Eguena 3** | 6 | 4 | *9* |
| **Eguakitza 4** | 7 | 5 | *6,7* |
| **Zapatua 5** | 8 | 5 | *3* |
| **Domeka 6** | 9 | 5 | *4* |
| **Astelehena 7** | 12 | 5 | *0,2* |
| **Martitzena 8** | 11 | 0 | - |
| **Eguaztena 9** | 9 | -1 | *12,7* |

# bertako berbak

*Juan Martin Elexpuru*

**Anabasa**

1. Landaretza ugaria, nahasia eta zarraparratsua.
*- Basuetan dago anabasia! Kristaurik pasau ezinddako moduan dare.*

2. Zakar edo hondakin pila
*- Kuarto honetan anabasa guztia daukau: liburu zarrak, bizikletia, ezetarako eztien gauzak....*



JOSU OKINA

## Farmaziak

**Eguakitza 11:**
GUALLAR. *San Antonio 5. Tf. 943 76 11 05*

**Zapatua 12:**
ESTELLA. *Matxiategi 5. Tf. 943 76 19 63.*

**Domeka 13:**
ESTELLA. *Matxiategi 5. Tf. 943 76 19 63.*

**Astelehena 14:**
MOZOS. *San Pedro 4. Tf. 943 76 12 15.*

**Martitzena 15:**
CAMACHO. *Oxirondo 4. Tf. 943 76 11 74.*

**Eguaztena 16:**
PUY. *Barrenkalea 25. Tf. 943 76 16 87.*

**Eguena 17:**
GUALLAR. *San Antonio 5. Tf. 943 76 11 05*

## Ogia

**Domeka 13:** Mizpildi.

## Telefonoak

| | |
|---|---|
| **OSASUNA / LARRIALDIAK** | |
| SOS deiak | 1 |
| DYA | 943 78 71 |
| Gurutze Gorria | 943 76 55 |
| Larrialdiak | 943 46 11 |
| Anbulatorioa (txanda) | 943 76 24 |
| Anbulantzia | 943 55 49 |
| Udaltzaingoa | 943 77 91 |
| Ertzaintza | 943 76 53 |
| Suhiltzaileak | 943 78 28 |
| Osasun Etxea | 943 76 24 |
| Arrasateko ospitala | 943 79 53 |
| Asepeyo | 943 76 16 |
| Pakea | 943 76 13 |
| Angiozarko medikua | 943 78 90 |
| Antzuolako medikua | 943 76 62 |
| **GARRAIOAK** | |
| Euskotren | 943 45 01 |
| PESA | 902 10 12 |
| Taxiak | 943 76 19 |
| RENFE | 943 28 35 |
| **UDALA** | |
| Udaletxea | 943 77 91 |
| Udal Artxiboa | 943 77 91 |
| Igerilekuak | 943 76 20 |
| Kultur Etxea | 943 77 91 |
| Liburutegia | 943 77 91 |
| Mizpirualde Egoitza | 943 76 13 |
| **BESTELAKOAK** | |
| Epaitegia | 943 76 14 |
| Erregistroa | 943 76 13 |
| Jardun | 943 76 36 |
| Jubilatuen Etxea | 943 76 21 |
| Postetxea | 943 76 26 |



**Amaia Otaegi**
Abenduaren 12an 17 urte.
Urte askotarako! Lagunak.



**Nora Madariaga**
Abenduaren 14an 17 urte. Urte askotarako! Lagunak eta etxekoak.



**Iñigo Martinez**
Abenduaren 7an 3 urte. Urte askotarako! Etxekoak, osabaizebak eta amama.



**Txomin Larrañaga**
Abenduaren 11n 3 urte.
Urte askotarako! Etxekoak.



**Lierni Domenech**
Abenduaren 12an 13 urte.
Urte askotarako! Familiakoak.



**Olatz Sanz**
Abenduaren 1
8 urte.
Urte askotara
Etxekoak.

URTEURRENA

## Luis Molina Higueras



Lehen urteurreneko meza domekan, abenduak 13, goizeko 11:30etan, Santa Marinan.

*Elizkizunetara joango zaretenoi, aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.*

## jaiotakoak

**Jon Andoni Gomez Lopez**
Azaroak 24
**Asier Jorge Gabilondo**
Azaroak 27

## hildakoak

**Ana Maria Mendizabal Ostolaza**
Abenduak 4, 79 urte
**Rufina Beistegi Umerez**
Abenduak 9, 93 urte
**Teodoro Sainz Iloro**
Abenduak 9, 97 urte
**Pedro Laspiur Eguren**
Abenduak 9, 88 urte

URTEURRENA

## Damaso Santos Arroyo



Lehen urteurreneko meza domekan, abenduak 13, goizeko 11:30etan, Santa Marinan.

*Elizkizunetara joango zaretenoi, aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.*

URTEURRENA

## Elena Lizarralde Elorza



Lehen urteurreneko meza domekan, abenduak 13, goizeko 11:30etan, Santa Marinan.

*Elizkizunetara joango zaretenoi, aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.*

URTEURRENA

## Mariano Begiristain Aranburu



Lehen urteurreneko meza domekan, abenduak 13, goizeko 11:30etan, Santa Marinan.

*Elizkizunetara joango zaretenoi, aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.*

URTEURRENA

## Maria Elgarresta Larrañaga



Lehen urteurreneko meza domekan, abenduak 13, goizeko 11:30etan, Santa Marinan.

*Elizkizunetara joango zaretenoi, aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.*

## zorion agurrak



**Olatz Laborda**
Abenduaren 7an 17 urte. Urte askotarako koadrilako umiai!



**Unai Rodriguez**
Abenduaren 11n 7 urte. Urte askotarako! Ana, Jabi eta Mikel.



**Maria Cid**
Abenduaren 12an 15 urte. Urte askotarako! Familiakoak.



**Josu Martin Erdabide**
Abenduaren 5ean urtebete. Urte askotarako! Familiakoak.



**Carmina Garcia**
Abenduaren 2an urtebetetzea. Urte askotarako! Alabak eta senarra.



**Saioa Agirre**
Abenduaren 9an 3 urte. Urte askotarako! Familiakoak.



**Jose Luis Sanz**
Abenduaren 13an 65 urte. Urte askotarako! Familiakoak.



**Irene Agirre**
Abenduaren 12an 26 urte. Urte askotarako Pitxurri! Lagunak.



**Maite Aranzabal**
Abenduaren 14an 7 urte. Urte askotarako! Etxekoak.



**Virginia Agirre**
Abenduaren 13an urtebetetzea. Urte askotarako! Frontoiko lagunak.



**Marina Iturriaga**
Abenduaren 17an 5 urte. Urte askotarako! Gurasoak.



**Naiara Cantero**
Abenduaren 3an 11 urte. Urte askotarako! Ama eta aita.



**Ainara Alberdi**
Abenduaren 4an 19 urte. Urte askotarako! Tio, tia, Markel eta Aran



**Belen Mujika**
Abenduaren 4an 22 urte. Urte askotarako! Gurasoak, Gorka eta Nieves.



**Lander Bretaña**
Abenduaren 13an 7 urte. Urte askotarako! Gurasoak.

# ANTZERKIA

▶ Goizeko Izarra taldearen **"Dizdira, beti, ez da urre"** antzezlana bihar, zapatua, 21:30etan Azpeitiko Zelaitxo antzokian.

▶ **"Bordaxuri"** antzezlana (Piarres Larzabalena) bihar, zapatua, 22:00etan Arrasateko Amaia antzokian. Senideak taldeak antolatuta.

# MUSIKA

▶ **Mikel Laboa** gaur, hilak 11, 22:30etan Elorrioko Arriola aretoan.

▶ **Tuco & Definitivos** gaur, eguakitza, 22:00etan Soraluzen, Gaztelupen.

▶ **Binilo festa** bihar, zapatua, 22:00etatik aurrera Nahikarin.

▶ **"Egingo dugu"** plataformak antolatuta, Arima beltza, Zup, Borrokan eta Petti taldeak eguakitzean, hilak 18, 22:30etan Pol-Polen.

▶ **Ruper Ordorika** hilaren 18an Jam aretoan.

KONTZERTUA

## *Medina Azahara*

**Noiz: gaur, eguakitza, 22:00etan**
**Non: Jam aretoan**
**Sarrera: 1.500 pezeta aurrez, 1.800 takilan**

Medina Azahara musika taldeak "Tanger" bere azken diskoa aurkeztuko du gaur gauean Jam aretoan. Dagoeneko ia bi hamarkada bete dituzte andaluziarrek musika munduan; 1980an kaleratu zuten lehen diskoak Estatu osoan ezagutzera eman zuen taldea eta lan hartan biltzen zen "Paseando por la mezquita" kantua andaluziarren himno antzeko bat bihurtu zen. Ordutik, beste 10 disko kaleratu dituzte eta taldean hainbat aldaketa izan dute. Estatu osoan jarraitzaile ugari izatea lortu du Medina Azaharak eta beraien diskak oso ondo saldu izan dira. Hain zuzen ere, "Donde esta la luz" (1993), "Arabe" (1995) eta "A toda esa gente" (1996, zuzenekoa) salduenetakoen zerrendan agertu izan dira azken urteotan. Estatuan ez ezik, atzerrian ere nahiko ezagunak dira; Fantzian, Alemanian, Argentinan, Mexikon edota Japonen beraien azken lanak argitaratu izan dira.

"Tanger" izenburuko azken diskoan arabiar, magrebiar eta andaluziar doinuei rock ikutu bat eman die taldeak, Medina Azahararen ezaugarri den tradizioa eta abanguardiaren arteko fusioa lortuz. Kitarra elektrikoak, lauda, teklatuak, arabiar bibolinak eta beste hainbat instrumentu tartekatzen dituzte eta ahotsen aldetik ere asko landutako diskoa da. Egin duten bideo-klipari esker "Danza al viento" izenburuko abestia asko entzuten ari da eta horrez gain gainontzeko kantu ezagunekin gozatzeko aukera izango dute taldearen jarraitzaileek. B



Medina Azahara: Andaluziako erritmoak rockarekin nahastuta.

# ERAKUSKETAK

▶ **Benito Cantero eta Agustin Gurrutxagaren** argazki erakusketa, domekara arte Kultur Etxean.

▶ **Juan Jose Altunaren** margoak Durangoko Berbaro elkartean martitzenera arte.

# IKASTAROAK

▶ **Urnietako Sarobe** zentruko zine aretoak kamara ikastaroa iragarri du abenduaren 14, 15 eta 16rako. 943 33 20 32.

# LEHIAKETAK

▶ **Amodiozko Gutunen VII. Berrigara Lehiaketa.** 1984an edo lehenago jaiotako edozein pertsonak har dezake parte. Lanen luzera ezin izango da bi orrialde baino gehiagokoa izan. Lanak emateko azkenengo eguna 1999ko urtarrilaren 13a izango da. Argibideak 943 76 36 61.

*Paper pintatuak - Pinturak*
A. ZANGITU
*ORDUTEGI BERRIA:*
*8.00-13.00 ETA 15.00-20.00*
☎ 943 76 19 54 BERGARA
IRU: ☎ 943 79 11 71 ARRASATE

Matxiategi Elektragintza C.B.
ELEKTRIZITATE MATERIALEN SALMENTA ETA INSTALAKUNTZA
Fleming 5 ☎ 943 76 19 94

Aldoka Maldoka
TABERNA
Kruz Gallastegi BERGARA

▶ **HIES Ekimena** taldeak "HIESa edo sexu segurua" gaiaren inguruko komiki lehiaketa deitu du. Lanak entregatzeko epea martxoaren 1ean bukatuko da. Argibideak 943 76 26 99.

# DEIAK

▶ **"Egin"** berriaren aldeko merkatua bihar, zapatua, goizez Plazan.

▶ **Odol ateraldia** eguaztenean 18:30etan Seminarioan.

▶ **Musika Eskolako asanblada** eguaztenean, hilak 16, 19:00etan.

▶ **Mariaren Lagundiko** haur hezkuntza eta lehen zikloko ikasleek gurasoei eskainitako jaialdia (dantzak, kantuak, antzerkia...) eguenean, 18:30etan, Ikastolako aretoan.

▶ Diputazioak, **bakardade arazoak** dituzten 65 urtetik gorako pertsonei Gabonak lagun taldean pasatzeko aukera ematen die. Interesatuek abenduaren 16a baino lehen eman beharko dute izena. Argibideak: 943 76 21 40.

▶ **Joseba Jaka II. Literatur Bekak**, euskaraz sortutako olerki, eleberri, saiakera edota gazte-literaturako lanei zuzenduta. Proiektuak abenduaren 19ra bitartean bidali ahal izango dira. 943 21 94 27.

# OHARRAK

▶ **Mariaren Lagundia**k, 1999an ospatuko duen 200. urteurrenari begira antolatutako ekitaldien artean, argazki erakusketa egin nahi du. Ikastetxearekin zerikusia duten argazkiak dituztenei erakusketan laguntzeko dei egiten zaie.

▶ **Bidekurutzeta 14an jaiotakoen eguna** domekan. Eguerdiko 12:30etan meza San Pedron eta 14:15etan bazkaria Pertxa elkartean. Izen-ematea: 943 76 24 54 (Luis Mari Etxaniz) edota 943 76 40 56 (Luis Mari Gutierrez).

▶ **"XXI. mendeko akordioa: Bai euskarari"** kanpainaren barruan, herri bazkaria (baba-jana) abenduaren 20an, 14:30etan. Izen-ematea Pol-Pol, Kortazar eta Antxonin.

# KINTADAK

▶ **1976**an jaiotakoen bazkaria abenduaren 26an Antxoni jatetxean. Izen-ematea (1.500 pezeta) bertan abenduaren 24a baino lehen.

▶ **1975**ean jaiotakoen bazkaria urtarrilaren 9an izango da Zabala jatetxean. Izen-ematea (2.500 pezeta) Kutxako 01.2249862.9 kontu korronte zenbakian abenduaren 30era arte.

# Z I N E A

**KARTELDEGIA**

**BERGARA. Novedades**

**Un crimen perfecto**
Eguakitza: 22:30.
Zapatua: 17:00, 19:30, 22:30.
Domeka: 17:00, 19:30, 22:15.
Astelehena, ikuslearen eguna: 19:30.

**Su majestad Mrs. Brown**
Eguena, zine-kluba: 20:00.

**ARRASATE. Alai zinema**

**Ojos de serpiente**
Eguakitza: 22:00.
Zapatua: 19:30, 22:00.
Domeka: 19:30, 22:00.
Astelehena: 19:00, 21:30.
Martitzena, ikuslearen eguna: 19:30, 22:00.

**Perdidos en el espacio**
Zapatua: 17:00.
Domeka: 17:00.

**EIBAR. Unzaga**

**Algo pasa con Mary**
Eguakitza: 22:15.
Zapatua: 17:00, 19:30, 22:15.
Domeka: 17:00, 19:30, 22:15.
Astelehena: 19:30, 22:15.
Martitzena: 17:00, 19:30, 22:15.
Eguaztena, ikuslearen eguna: 19:30, 22:15.

**EIBAR. Rialto**

**El zorro**
Eguakitza: 22:15.
Zapatua: 17:00, 19:30, 22:15.
Domeka: 17:00, 19:30, 22:15.
Astelehena: 19:30, 22:15.
Martitzena, ikuslearen eguna: 19:30, 22:15.

**ELORRIO. Arriola**

**Un romance muy peligroso**
Zapatua: 22:30.
Domeka: 20:00.
Astelehena: 20:00.

**Los pequeños guerreros**
Domeka: 17:00.

**Laburmetraien eta bideo-klipen selekzioa**
Eguena, zine-kluba: 20:15.

**UN CRIMEN PERFECTO**
***Zuzendaria:*** *Andrew Davis.*
***Aktoreak:*** *Gwyneth Paltrow, Michael Douglas, Viggo Mortensen.*
Alfred Hitchcock maisuaren klasikoan oinarritutako filmea errodatu du Andrew Davis zuzendariak (*El fugitivo*). *Steven Taylor* (Michael Douglas) dirudunak denetik dauka, bere emaztearen maitasuna eta fideltasuna izan ezik. Gauzak horrela, *Emily* (*Gwyneth Paltrow*) akabatzeko plan perfektoa makinatzeari ekingo dio...



**SU MAJESTAD MRS. BROWN**
***Zuzendaria:*** *John Madden.*
***Aktoreak:*** *Judi Dench, Billy Connolly, Geoffrey Palmer.*
Judi Dench aktoresak Urrezko Globoa lortu zuen filme honetan egindako lanagatik. 1860 urtearen inguruan, Ingalaterran, *Victoria Erregina* (Dench) bere gizonaren heriotzagatik afektaturik dago. Zaldiak zaintzen dituen *Brown*-en (Connolly) laguna egingo da eta horrek orduko gizartean eskandalu soziala piztuko du...

BERRIGARAk ez du gerta litezkeen emanaldi aldaketen erantzukizunik.

PANADEROKUA JATETXEA
Asteburuetan bertako babak eta sahieskia
SALBADOR 10 ELGETA
TF. 943 76 82 73

LONBIDE
OINETAKOAK
Bidekurutzeta 5
BERGARA
☎ 943 76 10 57



iRUDi
Erlojudenda
Bitxitegia
Ibargarai 2
943 6 51 65

**Urtero moduan, Deba Garaiko Hies Ekimena batzorde hiritarrak hainbat ekitaldi antolatu zituen abenduaren 1eko Hiesaren Nazioarteko Eguna ospatzeko. Jose Ignacio Telleria taldeko idazkariaren arabera, oraindik ere prebentzioa bultzatzen jarraitu behar da, gazteen artean, batez ere, kutsatze kasu dezente izaten direlako.**

JOSE IGNACIO TELLERIA
HIES Ekimena batzorde hiritarreko kidea

# "HIESaren inguruko gaietan emakumea nahiko baztertuta dagoela uste dugu"

**G.** Abenduaren 1aren inguruko ekintzen gainean, zer nolako balorazioa egingo zenukete?

**E.** Gure barneko balorazioa positiboa da, gauza berriak egin ditugulako aurten. Horien artean nabarmenena, beharbada, emakumeei zuzendutako foiletoaren kaleratzea izan da. Uste dugu emakumea nahiko bazterturik dagoela Hiesaren inguruko gaietan. Eta berez oso paper garrantzitsua betetzen du, lagun bezala, ama bezala edo gaiso bezala. Laborategiek, medikamentuak ikertzerakoan, proba guztiak gizonezkoekin egiten dituzte eta medikamentu horiek bigarren mailako efektuak izaten dituzte emakumeengan. Hain ona omen den "antiretrovidales" izenekoarekin hori gertatzen ari da hain zuzen, emakumeeengan efektu hormonalak dituela.

Bestalde, antolatu ditugun ekintzetan herritarren partehartzea txikia izan da. Uste dut talde guztietan gertatzen den gaitza dela; oso nekeza da jendearen parte hartzea lortzea.

**G.** Hiesaren inguruko informazio etapa gainditurik al dago gaur egun?

**E.** Urte batzuk igaro dira Hiesaren inguruko "boom" informatiboa izan zenetik eta badirudi gauzak nahiko baretu direla. Jakin behar duena badakiela uste du jendeak eta ez da horrela. Oraindik ere gazteen artean kutsatze kasu asko izaten dira, kutsatuen artean %50 inguru gaztea da hain zuzen. Hori dela eta aurtengo ekitaldi asko ikasleengana zuzendu ditugu, ikastetxeetan edo Arrasateko Gaztetxean kanpainak eginez. Bergarako ikastetxetan ez gara izan bertako eskolek Hiesaren inguruko euren programa propioa daukatelako. Hala ere, Deba Garaiko osoan egiten dugun moduan, datorren urtean gure erakusketa ibiltariak erakustea proposatu behar diegu.



Jose Ignacio Telleria arrasatearra, Hies Ekimena-koa. ARRASATE PRESS

**"Oraindik ere gazteen artean kutsatze kasu asko izaten dira, kutsatuen artean %50 inguru gaztea da hain zuzen. Kontuz jokatu beharra dago"**

**G.** Deba Garaiko egoera zer nolakoa da?

**E.** Estatistika gutxi dago baina Hies kasuei begiratuta, Euskal Herria zerrendaburuan dago Madril eta Bartzelonarekin batera. Deba Garaiko egoera Euskal Herrikoarekin parekatu daiteke eta, beraz, prebentzioa bultzatzen jarraitu beharra dago. Txertoa gure esku dago eta praktika arriskutsuekin kontuz jokatu behar da duten garrantzia eman behar zaie.

**G.** Orain, Hiesak afektaturikoen errejistroa egitearen aurka azaldu zarete...

**E.** Badirudi Europatik etorritako erabakia izan dela errejisto bat egitearena. Hiesdun gaiso bakoitzeko Estatuak hainbesteko dirulaguntza jasotzen du eta badirudi hori zertifikatzeko datuak behar dituztela. Filtrazio bat iritsi zitzaigun, administrazioak Hiesdun gaisoen errejistroa egin nahi zuela esanez. Izen-deiturak, jaiotze data edota arrisku-praktika jasoko lirateke zentsu horretan. Guk uste dugu ez dela beharrezkoa hori egitea, ospitaletan nahiko datu dituztelako gaisotasunaren eboluzioa eta kutsatse kasuen arrazoiak aztertzeko. Baina lehen aipatutako laguntzak direla eta arrazoi ekonomikoak daude horren atzetik. Gaisoen intimitatearen kontrako eraso argia da eta horren aurka gaude. Oraingoz, pozik gaude instituzioen eta gizartean lanean ari diren beste talde askoren aldetik solidaritate mezuak jaso ditugulako. B

# Aurrekontua 247 milioi pezetan gehitzea onartu zuen Udalbatzak

## Iazko superabitak eta diru sarrera handiagoek eraginda

**Udal aurrekontua 247 milioi pezetan gehitzea onartu zuen Udalbatzak joan zen astelehenean. 1997ko aurrekontuetan izandako superabitak eta hasieran aurreikusitakoa baino diru sarrera gehiago izateak ekarri du aurrekontu gehitzea.**



Trenbide zaharrean zorua konpontzeko 11 milioi pezeta inguru bideratuko ditu Udalak. ARTXIBOA.

Prestamoak amortizatzeko eta kredito berriak eskatzeko erabiliko da diru zati hau. Hain zuzen ere, Bergarako Artisten Elkartearentzat Bolun kultur gunea jartzeko, hasieran aurreikusitako 12 milioiei beste 6 milioi pezeta gehituko zaizkie. Aurrekontu gehikuntza Udalbatzak aho batez onartu zuen, baina Beart-en lokalaren kontuan HBk kontra bozkatu zuen, Mikel Eguren HBko zinegotziak adierazi zuenez, urte hasieran Udal aurrekontuak onartu zirenean diru zati honen berri ez zutelako izan eta Berrigararen bitartez enteratu zirelako Beart-entzat 12 milioi aurreikusita zeudela. Alkateak erantzun zion gai hau eztabaiadatua izan zela bere garaian.

Beart-en lokala egokitzeko aurreikusitako 18 milioiez gain, Osintxuko haur eskola eta ludoteka egokitzeko ere diru zati bat bideratuko da. Udalak Bolun hutsik duen lokalean kultur gunea egokitzeko Bergarako Artisten Elkarteak aurreproiektua landuta dauka, baina behin-betiko proiektua onartzeke dago oraindik. Lokala hutsik dago eta argi instalaziorik ere ez daua. Lanak lehenbailehen hasteko itxaropena daukate Beart-ekoek, baina noiz hasiko diren jakiterik ez dago oraindik.

### Trenbide zaharra konpondu

Bestalde, 15 milioi pezeta bideratuko ditu Udalak baserrietara doazen hainbat kamino konpontzeko. 11 milioi trenbide zaharra konpontzeko erabiliko dira: Urieta baserritik Altos Hornoseraino eta Mekolaldetik Deba Torloju lantegirainoko zatiak konpondu eta egokituko dituzte.

Horretaz gain, hirugarren mundurako urtero banatzen diren diru laguntzetan, hasieran aurreikusitako 5,5 milioiei, Mitch hurakanak kaltetuei laguntzeko beste 3 milioi pezeta gehitu behar zaizkie. Beraz, ia zortzi milioi pezeta bideratuko ditu aurten Bergarako Udalak hirugarren mundurako.

### Gazte Zerbitzua

Joan zen asteko Osoko Bilkuran Gazte Zerbitzua adjudikatzeko baldintza Pleguak ere onartu zituen Udalak, gobernu taldeko zinegotzien aldeko botuekin eta oposiziokoen kontrakoekin. HB subkontratazio politikaren kontra dago eta horregatik ez zituen onartu lehiaketa publikoa arautuko dituen baldintzak.

Gazte Zerbitzua udazkenean martxan jartzekoa zen, baina uda ostean plazaratutako lehiaketara eskaera bakarra aurkeztu zen eta honek ez zituen baldintzak bete. Horregatik, zerbitzua ez zen adjudikatu eta baldintza pleguak berriz kaleratu dira orain.

Gazte Zerbitzua Kultur Etxean kokatuko da eta astean 12 ordu eskainiko ditu. Gazteentzako informazioa lortu eta gazteei bideratu beharko die. B

**Bergarako Artisten Elkarteak Bolun izango duen kultur gunearentzat 18 milioi pezeta bideratuko dira**



Argazkian ikus daitekeen lehengo Zerrajerako pabilioia berriztuko dute, bertan lantegiak jartzeko.

# Labegaraietako Industrialdeako urbanizazio lanak egin dituzte

## Pabilioiak eraikitzen hasiko dira aurki

**Labegaraietako** Industrialdeako lehen faseko urbanizazio lanak ia amaitu dituzte. Duela pare bat aste zoruan asfaltua bota zuten eta, une honetan, pabilioiak eraikitzea geratzen da.

Labegaraietako Industrialdeako lehen fasearen lanak urtarrilean hasi zituzten. Iazko abenduan Bergarako Udalak eta Construcciones Amenabar S.A.k hitzarmena sinatu zuten industrialdeako lanak egiteko. Industria pabilioiendako 8.300 metro karratu eta bulegoetarako beste 3.500 metro karratu urbanizatzeko 186 milioi pezetan adjudikatu ziren lanak. Ondoren, hasieran aurreikusita ez zegoen horma bat egiteko, beste 28 milioi pezeta bideratu ziren eta lanok enpresa berak egin zituen. Obrak egiteko 6 hilabete bazituzten ere, lanak azaroan amaitu dituzte.

Pabilioiak eraikitzen hasi aurretik, industria poligonoaren gainean dagoen baserria botako dute.

Labegaraietako industria poligonoak 100.000 metro karratuko azalera dauka. Une honetan industrialdeak 35.000 metro karratu hartzen ditu eta hemendik gutxira eraikiko diren pabilioiek 8.000 metro karratu hartuko dituzte, nahiz eta orain arte 12.000 metro karratu betetzeko adina eskaera jaso. Urtarrilean adjudikatuko ei dituzte pabilioiak. B

## Bai Euskarari kanpainako herri bazkaria abian

**Euskararen** Kon-tseiluak bultzatu due "Bai Euskarari: XXI Mendeko Akordioa" kanpainaren barruan Bergaran eratu den her batzordeak hainbat ek taldi antolatu ditu dato rren astebukaerarako. Abenduaren 18an, esa baterako, haurren kale ra izango da 15:30eta eta, ondoren, neska et mutil guztiak San Mart plazan bilduko dira par kartak zintzilikatu et manifestua irakurtzeko.

Zapatuan, abendua 19, arratsaldean, berri haurrentzako jokuak gaztainerreak, trikitila riak eta kantuak izang dira San Martin plazan 20:00etan, trikipoteo "Itxaro and konpani"re kin eta Kukumako har kapaluekin. Gauerako gazteentzako afaria ira garri da Seminarioko p tioan eta afari osterako herriko taldeekin jaia dia. Domekarako, hila 20, herri bazkaria ant latu dute; herriko elkar gastronomikoek presta tutako baba-jana izang da.

Bazkarirako txarte lak (2.000 PTA), Pol-P len, Kortazarren eta A txonin eskura daitezke

ETXAGI
JATETXEA
AFARIAK, BATAIOAK,
JAUNARTZEAK,
EGUNEROKO MENUA,
GOSARIAK,
BAZKARIAK...
Masterreka 8 ☎ 943 76 53 12

GAZTELU
BURDINAKI DENDA
Mintegi 1 • Tf. 943 76 32 48 / 943 76 34 50 • BERGARA

Jose M. Martin
pinturak - paper pintatuak
sintasola - moketak - gotele
pintura industriala
Errekalde auzoa 5, 1.a ANTZUOLA
Tf. 943 76 62 02 / 908 77 64 91

# Bergarako Udalak Jose Antonio Zabala omenduko du datorren eguakitzean

**Euskalerriaren** Adiskideen Elkarteak eta Bergarako Udalak Jose Antonio Zabala omenduko dute datorren eguakitzean, hilak 18, Bergarako Udaletxeko Pleno Aretoan. Era berean, elkarteak argitaratzen duen "Egan" literatur aldizkariaren 50. urteurrena ospatuko dute.

Ekitaldia 19:00etan hasiko da eta bertan, Juan Antonio Garmendia Euskalerriaren Adiskideen Elkarteko Gipuzkoako buruak, eta Luis Mari Mujikak "Egan" aldizkariaren zuzendariak eta Guillermo Etxeberria idazkariak hartuko dute parte. Jose Maria Urkia, Alberto Bolibar eta Juan Antonio Zarate Euskalerriaren Adiskideen Elkarteko kideak eta Victoriano Gallastegi alkatea ere izango dira omenaldi ekitaldian. Bergarako Orfeoiak ere hartuko du parte.



Jose Antonio Zabalari merezitako omenaldia eskainiko zaio. ARTXIBOA.

Jose Antonio Zabala "Egan" aldizkariko bultzatzaile nagusietakoa izan da azken garaian, horregatik omenduko dute Bergaran, "Egan" aldizkarian idatzi edota lan egin duten beste hainbat lagunekin batera.

Jose Antonio Zabala joan zen uztailaren 7an hil zen 78 urte zituela. Enpresari eta abokatua, demokrazia garaiko Bergarako lehen alkatea izan zen 1979tik 1982ra; Gipuzkoako Batzarretako kide ere izan zen. Politikatik kanpo, enpresa, hezkuntza eta kultur arloetan lan ugari egin zuen. Euskalerriaren Adiskideen Elkarteko Gipuzkoako Batzordeko diruzaina izan zen eta Zuzendaritza Batzordeko kide ere bai. B

## Maiatzean lan istripuan hil zen Victor Gomezen heriotzaren inguruan epailearen aurrean deklaratuko du Chinchurreta S.A.-ko gerenteak

**Zubillagako** Chinchurreta S.A. enpresako gerenteak Bergarako instrukzioko hirugarren epaitegian deklaratuko du datorren astean. Enpresa horretan lanean ziharduenean hil zen Victor Gomez bergarar gaztearen kasua argitzeko tramitatu den espediente penala dela eta deitu du epaileak deklaratzera Chinchurreta S.A.ko gerentea.

Gogoratuko duzuenez, lan istripua joan zen maiatzaren 27an gertatu zen. Victor Gomezi altzairuzko hodi batzuk jausi zitzaizkion gainera, grua baten azpitik pasatzean, sujezio engantxeetako bat apurtu ondoren. Lan istripua langilearen zuhurtasun ezagatik gertatu zela zabaldu zen hasiera batean, baina Lan ikuskatzaileak segurtasun neurrietan hainbat huts nabaritu ditu. Honen ustez, lantegian beharrezko segurtasun neurriak hartu ez izanagatik gertatu zen istripua. Hutsegite larri honengatik, Chinchurreta S.A. enpresari 3 milioi pezetako isuna ezartzea proposatu du. Nolanahi ere, zigor administratiboa geldi geratuko da, prozesu penala bukatu arte.

Victor Gomez aldi baterako enpresa baten bitartez hartu zuten Chinchurreta S.A. enpresan. Aste bete baino ez zeramatzan lanean istripua gertatu zenean. B

MUJIKA
Jantzidenda
Barrenkalea 1. Tf: 943 76 29 91

BUNKY
ume eta gazteentzako oinetakoetan aukera aparta
Chicco • Hamiltons • Babybotte • Chupetin • eta abar
Artekalea 29, BERGARA. Telefonoa: 943 76 72 21

GURIDI altzariak
Era guztietako altzariak
Artekalea 8 Tf. 943 76 31 02

# Berrigara

347 zenbakia.
1998ko abenduaren 11.

**Errotalde Jauregia. 20570 Bergara**
**Telefonoa: 943 76 03 97**
**Faxa: 943 76 29 77**
**Argitaratzailea: JARDUN Elkartea**

**Zuzendaria:** Eneko Azkarate.
**Erredakzioa:** Edu Mendibil, Aitziber Azkondo. **Maketazioa:** Iñaki Iturbe.
**Publizitatea:** Kristina Romero.
**Harpidetza:** Nerea Lazpiur.
**Testuen zuzenketak:** Estepan Plazaola, Alex Labaien.
**Erredakzio kontseilua:** Miguel Angel Elkoroberezibar, Alex Labaien, Gorka Elortza. **Komikiak:** Bittor Rodriguez, Gorka Ortega & Jon Alvarez, Alex Ugalde, Unai Azkarate.
**Kolaboratzaileak:** Juan Martin Elexpuru, Josu Okina, Luis Mari Agirre, Imanol Sorondo.
**Banaketa:** Txantxangorri taldea.
**Inprimategia:** Gertu Koop. Elk. (Zubillaga. Oñati).

Azaleko argazkia: Berrigara.

Tirada: 5.100 ale.

Copyright: BERRIGARA.
Lege gordailua: SS 50/91.
ISSN: 1130-6599


BERRIGARAk ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.


**Erakunde hauen laguntzaz:**

Bergarako Udala
Gipuzkoako Foru Aldundia
Eusko Jaurlaritzako Kultura saila


## gutunak

**Ezer adierazi nahi baduzu, ekarri edo bidali iezaguzu zure gutuna. Postaz edo eskua Berrigara astekaria, Errotalde Jauregia z/g 20570 Bergara. Faxez: 943 76 29 7 Gutunak identifikatu egin behar dira**

### ANBULATORIOAN MEDIKU GEHIAGO

Edade kontuak direla eta, Bergarako Anbulatoriora sarritan joaten naiz, errezetak egin edo medikuari kontsultaren bat egitera.

Aurten, udatik hona, sekula baino jende gehiago dabilela esango nuke baina gauza bat komentatzera nator. Askotan, etxetik telefonoz deitu eta anbulatoriora zein ordutan joan behar naizen esaten didate. Baina gutxitan errespetatzen da ordutegi hori, eta tokatu izan zait esandako ordua baino beranduagoa heltzea nire medikua. Errespeto falta nabaria dela iruditzen zait eta ordutegia gehiago zaintzea eskatu nahi diet anbulatorioko arduradunei.

Bestalde, aste honetan, eguaztenean, anbulatoriora deitu nuen berriz kontsultara joateko asmoz eta egualkitzerako txanda eman zidaten. Atera kontuak! Egunean bertan ez, hurrengoan ere ez, hurrengoan. Kontsultara joan orduko igual sendatuta nago. Telefonoa hartu zidanari galdetu nion ea zer pasatzen zen horrenbeste itxaron behar izateko. Berak zera entzun zidan: fetxa hauetan jende asko gaisorik dagoela eta lehenago ezin zidala ordurik eman, ostiralera arte itxoin beharko nuela.

Azkenean, ze erremedio, ostiralean joan behar, baina ez dut uste 2000 urtearen atarian osasun zerbitzuak horrela funtzionatzea lojikoa denik. Gauzak hobetu beharrean txarrera doaz, itxura.

Gaiso asko dagoela?, ba mediku gehiago jar ditzatela nahiz eta arratsaldez izan. Ez dakit baina horri konpondidea aurkitzea ez dut uste hain nekeza denik.

*Joxe Larrañaga*

## tira biraka: bittor rodriguez



atrebentzia ezpada

## Santa Lutzia bezperarako strip-tease saio bat baino gehiago antolatu da. Joango zinateke horrelako batera?



**Mertxe Alvarado**

Ez, ni ez nau batere erakartzen horrelako saio batek, ez diot graziarik ikusten. Ez dut joatea gaizki ikusten baina ni behintzat ez nintzateke joango.



**Manuel Moral**

Horixe baietz! Zergatik ez, ba? Dibertitzea den guztia ondo dago eta kontua hori da, ondo pasatzea. Oraindik ez naiz sekula egon baina ondo egon daiteke.



**Marta Lopez**

Ez nintzateke joango. Nahiago dut benetan gustatzen zaizkidan ikuskizunetara joatea, antzerkira edo zinera adibidez. Baina gusto ezberdinak daude...



**Enrike Aranburu**

Ez zaizkit horrelakoak gustatzen. Ez naiz sekula joan baina hasiera batean behintzat ez naute erakartzen. Hala ere, ez noa esatera inoiz ez naizela joango.



**Kati Hurtado**

Egia esan, behin egonda nago eta ez nuke errepikatuko. Hura iskanbila! Guztien iritzi eta gustoa errespetatzen dut baina behin joanda nahikoa da.



**Jose Jabier Elorza**

Ez naiz egon sekula eta ez dakit joango nintzatekeen. Dena den, joatekotan, lagunekin joango nintzateke, bakarrik ez.

bai, esan!



**Gertaeraren bat salatu edo txalotu nahi baduzu, 943 76 03 97ra deitu eta sail honetan jasoko dugu zuk esana. Identifikatu gabeko mezurik ez da onartuko.**

**Iñaki Ugarteburu**
Udal Kirol Zerbitzuko teknikariak, orain dela bi aste atal honetan Milagros Gantxegik egindako komentarioari erantzun nahi izan dio. Ugarteburuk dioenez, Santa Zezilia egunean, Bergarako Orfeoiak Udal Pilotalekuan emanaldia eskaini zuen egunean, pilotalekuko berogailuak goizean goizetik jarri ziren martxan. Halere, instalazioa berria ez denez, atetik zein komunetik berotasun handia galtzen ei da eta egun horretan, arratsaldean beste emanaldi bat izan zenez, jande asko ibili zen sartu eta irten. Bestalde, berogailuak haize beroaren eta erradiadoreen bitartez berotzen du. Kontzertuan zehar haize beroarena kendu egin zen zarata gehiegi ateratzen duelako. Asteburu horretan kalean sekulako hotza egin zuela gogoratu nahi du Ugarteburuk.

ikuspuntua: **mikel lizarralde**

## *Inmunitatea eta inpunitatea*



1973ko irailaren 11n, Augusto Pinochet Ugarte militarrak zuzentzen zuen errebolta militarra Santiagoko La Moneda jauregira iritsi zen. Eraso haren ondorioz, Salvador Allende, txiletarrek hautestontzietan aukeratutako lehendakari sozialista, hil egin zen. Allende 1970an estatuko lehendakaritzara iritsi zenetik jasandako erasoen artean, azkena izan zen hura. Erabakigarriena, ostera.

Hortik aurrera izua iritsi zen Txilera, izua eta heriotza. "Txile marxismoaren uztarritik askatzeko asmoarekin", Pinocheten diktadurapean 3.000 preso politiko "desagertu" ziren, beste milaka lagun torturatu egin zituzten eta 30.000 txiletarrek erbestera alde egin behar izan zuten. Pertsona baten ekintzak, besteengan izan duten eraginaren arabera neurtzen baditugu, Pinochetek Guiness liburuan (diktadore odoltsuen artean) sartzeko puntu asko irabazi ditu 25 urtetan.

Orain, diktadoreak herriari hitza kendu zionetik mende laurdena pasatu denean, Garzon izeneko epaile kontraesankor batek (adierazpen askatasuna babesten ez duen epaile berak), urte horietan guztietan hildako herritarrentzako justizia eskatu, eta Pinochet atxilotu zein estraditatzeko agindua eman du. Txileko "demokraziarako transizioa" ikusita, eta Pinochetek bere buruarentzat gordetako pribilegioak kontutan hartuta -lehendakaritza laga eta Armadako buruzagitzan zortzi urtez segitzea eta ondoren bizitza osorako senatore kargua hartzea- ezinezkoa zirudien diktadorea Txilen bertan epaitzea, eta erabaki horrek kanpotik etorri behar izan du.

Hala ere, Justiziak mundu honetan nola funtzionatzen duen aspaldi ikasi genuen, eta inpunitatea eta inmunitatea sarritan nahasten direnez, ikusiko dugu zer gertatzen den.

Dagoeneko estradizioa onartu du Erresuma Batuko gobernuak, eta Pinochet epaitzen badute, nolabaiteko garaipena lortuko lukete orain arte galtzaile hutsak izan direnek. Ez da berandu izango. B

asteko menua: **leku-berri merenderoa**

# Porru albardatuak



MARIA LUISA GEZALAGA
*Leku-Berri merenderoko sukaldaria*

**OSAGAIAK (4 lagunentzat)**

- 12 porru
- 12 york urdaiazpiko xerra
- Irina
- Arrautza

*Saltsa espainiarra egiteko:*

- Tipula erdi
- Oliba olio baso bat
- Irina

**PRESTAKETA**

- Porruaren alde zuria ur eta gatzetan egosi.
- Egosi eta gero, porrua york urdaiazpikoarekin batu eta albardatu.
- Saltsa espainiarra egiteko, jarri tipula zartaginean biguntzen eta irin piskat gehitu.
- Saltsa loditzeko, porruaren salda piskat bota.
- Saltsa gainean porruak ipini eta perrexil txikitua, gatz apur bat eta olio errea bota.
- Guztia hogei minutu inguru sutan egosten laga.
- Bukatzeko, gazta apur bat bota eta labean gratinatu.

adituen esanetan

# Urtikaria

CRISTINA GARCIANDIA, *dermatologoa*

Urtikaria azaleko erreakzio alergikoa litzateke eta nahiko ohizkoa da, izan ere biztanlegoaren %15ari afektatzen dio. Kasu gehienak 20 urtetik 40 urtera bitarteko gizon zein emakumezkoetan izaten dira. Asunen pikatadekin gertatzen den moduan, azalean "habones" deiturikoak agertzen dira: azala gorritu eta handitu egiten da eta horrek azkura sortzen du. Urtikaria migratzailea denez, gorputz atal batetik bestera joaten da eta toki batean desagertu ahala berriz agertzen da gorputzeko beste atal batean.

Urtikaria mota ezberdinak daude. Alde batetik urtikaria akutua dago (sei astetik beherako iraupena duena) eta bestetik kronikoa (bi hilabatetik gorakoa). Akutuaren kausak medikamentuak (penilizila, tetraziklina) edota elikagaiak (arraina, mariskoa, esnea, platanoak, marrubiak edota intxaurrak) izan daitezke. Infekzioetatik edota pikatadetatik ere urtikaria ager daiteke. Urtikaria akutuetako batzuk kronikoak bihurtzen dira eta kronikoen %40-60an ez da arrazoirik jakiten.

Tratamenduari dagokionez, onena medikuarengana zuzentzea izaten da tartean arnasa hartzeko arazoa egonez gero kasu larri baten aurrean egon gaitezkeelako. B

bergarako gordailutik

## OSINTXU

**Imanol Sorondo**

Osintxu edo Osiranzu, honela azaltzen baita idazti batzuetan, auzo zaharra da, eta izango zuen bere garrantzia XVI. menderako ostatu bat bertan zeukanean.

Bere Ermita Emeterio eta Zeledonio santu euskaldunen izenekoa zen, eta 1834. urteko uholde beldurgarriak eraman zuen; oraingoa baino hurbilago zegoen Deba ibaitik. Osintxu, Basalgo, Burunano eta abar, Oxirondotarren Elizakoak izan ziren beti, eta denon artean auzo berezi bat egiten zuten., 1661.eko idazti batean hauxe esaten da: urte asko dira Oxirondoko ermita horretan Karidadezko Kofradi edo anaiadi bat sortu zela; bere araudien artean bazen bat, kofradikoek meza eskatzen zuten egunetan, Santamainako apaizak ematera behartzen zituena: estipendio modura, kofradiko bakoitzak 8 marabedi ipini behar zituen. Geroago, Osintxuarrek idazki bat bidali zieten Santamainako apaizei, hiru egunen barrenean erantzun zezatela eskatuz: meza igandero nahi zutela, Jaunaren zerbitzu handienerako eta bere animen poztasunerako. Jende asko gelditzen zela Osintxun mezetara joan gabe, eta bestela litzatekeela bertan balego. Urrutiko baserriak zeudela eta aldapatsuak; baita ere aipatzen dira negu hotza, elurra, euria, edadekoen ezintasuna eta etxeak zaindu beharra.

Santamainako apaiz taldea sakristian elkartu zen eta bere erantzun luzean honelakoak esan zituen: Osintxura joaten hastekotan, auzo gehiagok ere berdina eskatuko luketela; lehendik ere ez omen ziren gizon gehiegi mezetara joaten; ez zutela uste gehiago joango liratekeenik Osintxun ipintzearekin.

Bukatzeko esan behar dugu, orain ehun bat urte, zenbaki borobiletan, lortu zuela Osintxuk bere Ermita Parroki egitea. B

# Realeko jokalariak ezagutzen





**Karmen Uribetxeberria** bergararra ETB-2ko **"Todo por un sueño"** programan ikusi ahal izan genuen joan zen eguaztenean. Karmenek **Txetxu Ugalde** programako aurkezleari karta bat bidali zion, **Krauss** Realeko entrenatzailea eta **Cvitanovic** jokalaria ezagutzea eskatuz. Handik gutxira programaren baietza jaso zuen Karmenek eta Realeko jokalari guztiak ezagutzeko Zubietara eraman zuten. Bertan, **Loren**ekin izan ezik, beste jokalari guztiekin berba egiteko aukera izan zuen. Berak azaldu digunez, "**Gomez** argentinarra iruditu zitzaidan sinpatikoena, serioa, jatorra eta edukazio handikoa. Hitz gutxikoa izan arren, **Aranzabal** ere oso majoa da". Karmenek Krauss entrenatzailearekin ere jardun zuen hizketan eta alemaniarra erdaraz primeran moldatzen dela esan digu. Datorren astean Realekoak Bergaran izango ditugu.

# Antzerkigileak kalejiran



Ikusleak antzerkira erakartzeko modu asko dira eta **Fragoli** talde donostiarrak kalejira egin zuen zapatu eguerdian gaueko emanaldirako giroa berotzeko edo. **Teresa Lopez de Munain, Josean Bengoetxea eta David Errasti** aktoreak asto, ahari eta guzti atera ziren Bergarako kaleetara eta ikusmin dezentea piztu zuten. Batek baino gehiagok noizean behin ahuntzaren abileziak erakustera etortzen diren ijitoekin konfunditu zituen. Umore onez, Fragolikoek kale antzerkirako duten trebetasuna erakutsi zuten. Gaueko emanaldian, berriz, 180 ikusle inguru bildu ziren Novedadesen **"Kromlech"** euren azken lana jarraitzeko.

# *Urrezko ezteiak*



*__Pascasio Alberdik eta Jesusa Araiztegi__k euren ezkontzaren urrezko ezteiak ospatu zituzten joan zen azaroaren 28an. Jesusa eta Pascasio 1947ko azaroaren 27an ezkondu ziren __Antzuolan__ eta sendikoekin ospatu nahi izan dituzte elkarrekin igarotako azken 50 urteak. Erresidentziako elizan meza entzun ondoren, bikotearen omenezko bazkari ederra izan zuten. Guztira, 60 bat lagun bildu ziren eta egun guztian zehar giro bikaina. Zorionak eta eutsi osasunari!!*

## BERGARA XVIII. MENDEAN

# Bidaiari ilustratu baten ikuspegia (I)

**Aste honetan eta hurrengoan "Zumalakarregi Museoa" aldizkarian, Mikel Alberdi Sagardiak, Bidaiari ilustratu bat XVIII. mendeko Euskal Herrian izenburuarekin argitaratutako pasarteak erakutsiko ditugu BERRIGARAn. Xabier Larrañaga irakasle eta BERRIGARAko kolaboratzaileak bildu ditu hemen argitaratzeko.**

Xabier Larrañaga

Gustora irakurtzen da bidaiari atzerritarrek gure herriari, Euskal Herriari buruz idatzirikoa. Oraingo honetan, 1996an "Zumalakarregi Museoa" aldizkarian, Mikel Alberdi Sagardiak, Bidaiari ilustratu bat XVIII. mendeko Euskal Herrian izenburupean argitaratutakotik hartutako pasarte batzuk dakarzkizuet. Berau Zaragozan, 1994an aurkituriko eskuizkribu baten transkripzioa da. Kasu honetan Bergarari buruzkoak azaltzen ditugu. Testua gazteleraz dago eta era horretan ekartzeak irakurleari garai hartako gaztelera dastatzeko aukera ematen dio. Gainera Bergarakoari buruz idatzirikoa nahiko luzea denez (Bilbo eta Donostiakoekin luzeena) bi zatitan banatzea erabaki dugu. Honetan herria, San Pedro eta Santa Marina parrokiei buruz aritzen da. Hurrengoan, bereziki Erret Mintegiari buruz idatzirikoa emango dugu aditzera.

Ezezaguna zaigun bidaiaria Elorriotik dator eta horrela dio:

*Salimos por la tarde para Bergara, distante dos leguas* [legua bakoitzak bost kilometro eta erdi inguru zituen] *de camino, una de subida y otra de bajada, perversisimas ambas.* [Ondoren Bizkaiari buruzko aipamen batzuk egiten ditu eta zertxobait aurrerago horrela jarraitzen du].

*Bergara es una villa cuio vecindario pasa de sietecientos vecinos, a que ha ascendido en estos ultimos años de quinientos que antes tenia. Su labranza se halla en un pie casi perfecto de modo que de los terrenos mas esteriles sacan catorce fanegas de trigo* [fanega edo anega edukiera-neurri bat da garia, garagarra eta horrelakoak neurtzeko; Gaztelan hamabi zelemin edo lakari edo 55 litro eta erdiko edukiera zuen] *haviendo muchos de treinta y aun de quarenta, pero sus montes se allan en el más infeliz estado por el mal govierno de la villa, y el infeliz estado en que se allan sus propios* [*propios* delakoak, kasu honetan udaletxearen lurraldeak dira; hauek udalaren gastuei aurre egiteko balio zuten. *El monte de Gastandola, que será de un quarto de legua en quadro es el unico con que oy cuentan en sus empeños* [utzi, laga egiten zirenak diru baten truke]. *Las demas arboledas, que no son muchas ni grandes, pertenecen a particulares.*



POL-POL ARGAZKI TALDEA

*Tiene esta villa dos parroquias, dos seminarios, y un combento de monjas. La parroquia principal de San Pedro, es de tres nabes muy espaciosas, y de bien proporcionada largura. El presviterio es obra antiquisima, de mas de sietecientos años de antiguedad. Las dos galerias inmediatas son de mediados del siglo diez y seis, y la que ocupa el coro, de ultimos del mismo siglo. La ymagen de Christo que ay en una capilla baxo de esta parte, del tamaño del natural, y que representa al señor en su agonia, es a mi entender la mejor efigie de escultura que jamas he visto. El altar maior es de principios del siglo diez y seis y del gusto de entonces. La Parroquia de Sta. Marina, es toda de principios del siglo diez y siete, mas elevada que la de San Pedro, de tres naves mui gallardas, y si tubiera una galeria mas, seria de las mejores iglesias que huviesen. Su retablo maior se hizo treinta años hace. Tiene (xxxx) de marmol mal escogido, y un bosque de madera con el desorden propio de aquel tiempo.*

# JAKIN
a k a d e m i a

## INFORMATIKA

| | | | |
|---|---|---|---|
| LEHEN URRATSAK | Windows, MS-DOS | KONTU ETA MERKATAL GESTIO MEKANIZATUA | Kontabilitate mekanizatua, Biltegia eta fakturazioa, Nominak |
| TESTU PROZESADOREAK | Word, WP... | | |
| DATU BASEAREN GESTIOA | Access, Dbase... | PROGRAMAZIO HIZKUNTZAK | Cobol, Pascal... |
| ORRI ELEKTRONIKOA | Excel, Lotus... | MEKANOGRAFIA | Hastapena eta hobekuntza |
| AURKEZPEN GRAFIKOAK | Powerpoint, Corel draw... | INTERNET | Web orriak, Posta... |

**TALDE MURRIZTUAK • KLASEAK GOIZEZ ETA ARRATSALDEZ**

Santalaitz 6 • Tf. 943 76 00 68 BERGARA / Arregitorre 6 • Tf. 943 74 08 95 ELGOIBAR

# Bergara ezagutzen lehiaketa 99




- **14-18 urte** bitartekoendako
- **Urtarriletik aurrera ostiral arratsaldeetan** Kartzela Zaharrean, Bergarari buruzko galderak zuzen erantzunez gero, **EGUNDOKO SARIA** izango duzue
- **10-15 laguneko taldeak osatu** eta abenduaren 6a baino lehen eman izena Jardunen: **Kartzela Zaharra. Tf. 943 76 36 61 / 76 08 19**

Antolatzailea:

Jardun

# Txakurtegia Bergaran

## Txakurrak jasotzeko zerbitzua Axen Garitanori eman zaio

**Kalean aurkitutako txakurrak jasotzeko zerbitzua Axen Garitano bergararrari adjudikatzea erabaki du Udal Gobernu Batzordeak. Udaltzainek kalean batutako txakurrak Eibarrera eraman izan dira azken urteotan baina urtarriletik aurrera Axen Garitanok Gaittao baserrian duen txakurtegira bidaliko dira.**

Bergarako Udalak orain arte Deba Beheko Mankomunitatearekin zuen kontratua bukatutzat emango da urte amaieran. Bi izan dira kontratua aldatzeko arrazoi nagusiak: alde batetik Axen Garitanok aurkeztutako eskaintza Deba Beheko Mankomunitatearena baino hobea izatea eta, bestalde, herrian bertan txakurrak lagatzeko aukera, orain arte udaltzainek beraiek eraman behar izaten zituztelako txakurrak Eibarreko txakurtegira.

Axen Garitanoren eskaintzaren arabera, Udalari 740.000 pezeta inguru kostatuko zaio aipatutako zerbitzua (urtean 25 txakur jaso ezkero egindako kalkuluak dira). Hileroko kuota 45.000 pezetakoa izango da eta horrez gain txakur bakoitzak txakurtegian igarotzen duen egun bakoitzeko 400 pezetako mantenimendu gastuak ordaindu beharko ditu Udalak. Esan bezala, urtarrilaren 1etik aurrera, txakurrak jasotzeko zerbitzua urtebeterako adjudikatuko zaio Axen Garitano bergararrari. Era berean, Deba Garaiko Mankomunitatea osatzen duten herriei zerbitzuaren inguruan interesik duten galdetuko zaie, zerbitzu merkeagoa lortu ahal izateko.





**Aurten 24 txakur jaso**

Alfonso Alonso udaltzainburuak adierazi digunez, "1997an 28 txakur jaso genituen Bergaran eta aurten, berriz, 24 jaso ditugu oraingoz. Orain arte Eibarreko txakurtegiarekin ondo moldatu izan gara baina jasotako eskaintza berria hobea izanik eta erosotasun arrazoiak kontutan hartuz, datorren urtean txakurrak Bergaran bertan lagatzeko zerbitzua kontratatzea erabaki da". Zerbitzua adjudikatu baino lehen egindako azterketan jasotzen denez, txakurrak bataz beste 20 egun egon izan dira Eibarko txakurtegian jabe berria topatu edo akabatu arte (txakurra jasotzeko prest dagoen inor azaltzen ez bada, jaso ondorengo 31. egunean txakurra akabatzen dute txakurtegian, albaitariak injekzioa jarriz).

Axen Garitano Eibarko txakurtegian ari da lanean. Azken lau urteotan Deba Beheko Mankomunitatean 700 txakur inguru jaso direla esan digu. Horietatik 200 bat akabatu behar izan dituzte; "hilabete pasa ondoren, jabea agertzen ez bada, interesatuta da-



Argazkian, Axen Garitano Gaittaon duen txakurtegian. Axen Eibarko txakurtegian ari da lanean azken urteotan. Urtarriletik aurrera Bergaran jasotako txakurrak Gaittaora eramango dira.



goen beste norbaiti eskaintzen zaio eta kontrako kasuan txakurra akabatzen da. Bergaran ere berdin jokatuko dugu. Batu eta handik hiru egunera norbait interesatuta baldin badago, seinalea eskatu eta beste erdia txakurra batzera etortzen denean kobratuko zaio. Txipa eta txertoaren gastuak kobratuko zaizkio kasu horretan".

Txiparen kontuarekin badu anekdotarik Axenek; "Madril eta Burgos aldeko txakurrak agertu izan zaizkigu Eibarren, hanka eginda edo bertan laga dituztelako. Zenbait kasutan, jabeak jakinean etxez aldatu behar duela, traba egiten diolako edo animalia kalean edo beste herriren batean lagatzen du. Behin txipari esker txakur baten jabea Madrilgoa zela jakin genuen; deika eta deika ibili ginen eta karta bat ere bialdu genion. Azkenean bere herriko udaletxetik txakurraren jabeak pisuz aldatu zuela eta ez zekitela non zegoen erantzun ziguten".

**Oporretan lan gehiago**

Oporretan lagatako txakurren kasu gehiago izaten dira. Axenen hitzetan, "txakurren erresidentzia bateko gastuak ez ordaintzearren, jendeak edozein lekutan lagatzen ditu animaliak eta nabaria da oporraldietan izaten den gorakada. Jende batek ez daki oraindik txiparena zertarako den. Oso erraz identifikatzen dira txakurren jabeak gaur egun baina gertatzen da jasotzera ez agertzeagatik ez dutela isunik jartzen. Ez dut hori lojikoa ikusten; aurrera egin beharrean atzeraka gabiltza...".

Kasu gehienetan txakur mestizoak dira kalean batutakoak baina arrazakoak edota ehizakoak ere agertu izan dira. "Denetik tokatu izan zaigu orain arte. Jeneralean ez dira txakur arriskutsuak izaten eta behin bakarrik jaso dut txakur baten hozkada. Ezer larririk ez. Txakurrak ondo tratatzen jakin behar da". Bergaran ez dago txakurren errolodarik eta baserrietan daudenak kontutan hartuz zaila da zenbat txakur dauden kalkulatzea. Hala ere, Axenen prebisioen arabera, "hasieran, astero, hiru bat txakur jasoko ditugula kalkulatzen dut. Eibarren ere lehendabiziko urtean sekula baino txakur gehiago jaso genituen. Ondoren, jendea kontzientziatu ahala, gutxitzen joango direla uste dut". Egunotan Axen Garitano Gaittaon duen instalazioa hobetzeko lanetan ari da. Txakurrak bertara heldu bezain pronto, janaria eta ura emango zaie eta beharrezkoa suertatzen denean albaitariak desparasitatu egingo du animalia. Animaliari tratu ona emango diogu hemen dagoen bitartean eta beste txakurrekin egiten den bezala pasiatzera ere aterako dugu inguruko zelaietan". B

**"Txakurren erresidentzia bateko gastuak ez ordaintzearren, jendeak edozein lekutan lagatzen ditu animaliak, oporretan batez ere"**
**AXEN GARITANO**

# Labegaraietako futbito txapelketa

## partiduak

**Zapatuan barruan**

| | |
|---|---|
| **19:00:** Tom Cat Argandolas-Arbe Kirolak | **Azpeitxi** |
| **20:00:** Azpeitxi Jatetxea-OH Zerezos | **Arbe** |

**Zapatuan kanpoan**

| | |
|---|---|
| **16:00:** Agiñaspi-Moskis | **Ezinleike** |
| **17:00:** Ezinleike-Sirimiri Eri | **Ion Autoak** |
| **18:00:** Ion Autoak-Artusamak | **Irubide** |
| **19:00:** Irubide Jatetxea-Urrutxurtu | **Artusamak** |

**Domekan barruan**

| | |
|---|---|
| **16:00:** Pinturas Bergara-Patatus | **HHH** |
| **17:00:** HHH-Agiñaspi | **Moskis** |
| **18:00:** Moskis-Ufala | **Shaktale** |
| **19:00:** Shaktale-Mongatxurrak | **Bildurbarek** |
| **20:00:** Bildurbarek Opel/Lam-Azpeitxi | **Mongatx.** |

**Domekan kanpoan**

| | |
|---|---|
| **09:00:** Txipiron-La Juve | **Amilotx** |
| **10:00:** Amilotx-Mo(ko)lotov | **Ari Ari** |
| **11:00:** Ari Ari-Bayer | **Usoa** |
| **12:00:** Usoa-Etengabe | **Igandekoak** |
| **13:00:** Igandekoak-Matxakategi | **Etengabe** |
| **16:00:** Agirrebeña Jatetxea-Ezinleike | **Sirimiri Eri** |
| **17:00:** Sirimiri Eri-Xurrupak | **U. Bikoitza** |
| **18:00:** Uve Bikoitza-Guadalest | **Buya** |
| **19:00:** Buya-Amozkibar | **SLP** |
| **20:00:** SLP-Komando Piperrak | **Amozkibar** |

## argi!

### Lehen itzulia amaituko da asteburuan

Aste honetan partidu guztiak jokatu beharko dira, lehendabiziko itzulia amaitzeko. Jokatzen ez duen taldeak partidua galdu egingo du.

## jokoz kanpo



**ARITZ BEISTEGI**
**Jauja OH Zerezos**

**G.** Zer dela eta Jauja OH Zerezos?
**E.** Ez dakit. Berria naiz taldean. Jende falta zuten eta eskubaloia utzi nuenez, animatu egin nintzen. Taldea osatzen duten gehientsuenak kuadrila berekoak dira.
**G.** Taldea noiztik dabil txapelketan?
**E.** Hasieratik.
**G.** Zer moduz zabiltzate?
**E.** Erdi aldean.
**G.** Zein postutan jokatzen duzu?
**E.** Atzean. Aurrean aritzeko trebetasuna falta zait. Dakidan bakarra korrika egiten da. Eskubaloian eskuak erabiltzen dira eta hemen ere eskuak erabiltzen ditut beharrezko ez izan arren. Askotan jendea kexatu egiten da eskuak gehiegi erabiltzen ditudalako baina ohitura eskubaloian jokatzetik datorkit eta...
**G.** Arbitroen lanarekin ados?
**E.** Nire ustez, joan zen urtean baino seriotasun handiagoa dago txapelketan. Arau asko daude eta batzuk aldatu egin dira baina arrazoiren bat izango dute batzordekoek arau-aldaketa horiek egiteko. Jokalarien aldetik borondate falta dagoela uste dut. Batzordeak lan egokia egiten du.
**G.** Txapelketako jokalari bat?
**E.** Erkaitz Gabilondo.

## gora eta behera

### Portaera ona

Azken jardunaldian partidu asko joka ziren eta Antolaketa Batzordeak, parti guztietan izan den portaera eta joko o azpimarratu nahi izan du.

### La Juvek 3 puntu gutxiago

Antolaketa Batzordeak La Juve talde hiru puntu kentzea erabaki du, arbitra tzera ez agertzeagaitik. Usoa taldear kontrako partidua galdu izana eta aip tutako zigorraren ondorioz galduta beste 3 puntuak kontutan hartuz, pos bat jaitsi da, bederatzigarrenera iga delarik.

## emaitzak

| | |
|---|---|
| Amilotx-Bayer | 3- |
| Komando Piperrak-FAC | 4-1 |
| Shaktale-Bildurbarek Opel/Lam | 4- |
| Jauja OH Zerezos-Ortzi | 4- |
| Artusamak-Txipiron | 5- |
| Bayer-Igandekoak | 4- |
| Etengabe-Irubide Jatetxea | 3- |
| Mo(ko)lotov-Agirrebeña Jatetxea | 3- |
| Amozkibar-Tom Cat Argandolas | 3- |
| Bar Canalejas-A Ze Flaxa Etxagi | 2- |
| Errotagain-Bildurbarek Opel/Lam | 1- |
| Matxakategi-Amilotx | 6- |
| Guadalest-Buya | 3- |
| Patatus-HHH | 2- |
| Ufala-Uve Bikoitza | 3- |
| La Juve-Usoa | 0- |
| Urrutxurtu-SLP | 3- |
| Arbe Kirolak-Pinturas Bergara | 4- |
| Xurrupak-Jakina Patxaran Team | 5- |

## sailkapenak

### Lehen maila

| | | P | J |
|---|---|---|---|
| 1. | A Ze Flaxa Etxagi | 20 | 9 |
| 2. | Pagomendi | 19 | 8 |
| 3. | Errotagain | 17 | 9 |
| 4. | Ortzi | 11 | 9 |
| 5. | Azpeitxi Jatetxea | 10 | 7 |
| 6. | Bar Canalejas | 10 | 9 |
| 7. | Jauja OH Zerezos | 9 | 8 |
| 8. | Bildurbarek Opel/Lam | 9 | 8 |
| 9. | Mongatxurrak | 5 | 7 |
| 10. | Shaktale | 4 | 8 |

### A multzoa

| | | P | J |
|---|---|---|---|
| 1. | FAC | 27 | 10 |
| 2. | Artusamak | 25 | 9 |
| 3. | Txipiron | 18 | 9 |
| 4. | Usoa | 15 | 9 |
| 5. | Komando Piperrak | 13 | 9 |
| 6. | Urrutxurtu | 13 | 9 |
| 7. | Etengabe | 13 | 9 |
| 8. | Irubide Jatetxea | 6 | 9 |
| 9. | La Juve | 5 | 8 |
| 10. | Ion Autoak | 5 | 9 |
| 11. | SLP | -2 | 9 |

### B multzoa

| | | P | J |
|---|---|---|---|
| 1. | Guadalest | 28 | 10 |
| 2. | Tom Cat Argandolas | 22 | 10 |
| 3. | Arbe Kirolak | 22 | 10 |
| 4. | Moskis | 18 | 9 |
| 5. | Uve Bikoitza | 18 | 10 |
| 6. | HHH | 16 | 10 |
| 7. | Ufala | 15 | 10 |
| 8. | Agiñaspi | 10 | 9 |
| 9. | Buya | 7 | 10 |
| 10. | Pinturas Bergara | 5 | 9 |
| 11. | Amozkibar | 3 | 9 |
| 12 | Patatus | 1 | 10 |

### C multzoa

| | | P |
|---|---|---|
| 1. | Xurrupak | 24 |
| 2. | Ezinleike | 22 |
| 3. | Sirimiri Eri | 19 |
| 4. | Bayer | 17 |
| 5. | Jakina Patxaran Team | 16 |
| 6. | Agirrebeña Jatetxea | 15 |
| 7. | Ari Ari | 11 |
| 8. | Matxakategi | 10 |
| 9. | Mo(ko)lotov | 7 |
| 10. | Amilotx | 7 |
| 11. | Igandekoak | 5 |

### Igoera faserako sailkatuta

Futboleko bigarren mailako kadeteak, 2-3 irabazi zuten Eibarren kontra. Fernando Oregiren mutilak garaipen garrantzitsua lortu zuten emaitza honekin igoera faserako sailkatu baitira. Lehen zatian, maila paregabea erakutsi zuten zelaian. Bergararrek bi goleko emaitzarekin joan ziren atsedenaldira.

Bigarren zatian, berriz, eibartarrek zorte handiagoa izan zuten. Bi gol egitea lortu zuten Oregiren mutilei berdinduz. Halere, mahoneroek azken minutuak aprobetxatu zituzten eta gol bat gehiago eginez, garaipena lortu zuten. Hemendik aurrera bigarren mailako kadeteek igoera fasean jokatuko dute. Ea zer nolako maila erakusten diguten.

### Iraundi jaisteko arriskuan

Asteburuko partidu bakarra, senior mailako Iraundi eskubaloi-taldeak jokatu zuen. Urnietaren kontra izan zen eta Lijoren mutilek ez zuten zorterik izan. 31-27 galdu zuten. Lehen zatian 14-13 hasi ziren galtzen. Bigarren zatian berdintzea lortu zuten. Gol ugari sartu zuten bai urnietarrek eta bai bergararrek ere. Hala eta guztiz, azken minutuetan Iraundik ez zuen zorte handirik izan eta aurkariak lau goleko aldeaz nagusitu ziren.

Datorren astean amaiera emango zaio lehen txandari. Une honetan, 9 punturekin zazpigarren daude. Datozen partiduetan, 24 puntu dituzte jokoan eta 20 lortuz gero, mailaz jeisteko arriskutik aldenduko lirateke.

### Saskiratze gutxiko partidua

BKEko saskibaloi saileko jubenil mailako neskak, 23-17 irabazi zuten Eskoriatzaren kontra. Talde biak berdinduta zihoazen sailkapenean beste talde batzuekin batera.

Azken partidu hau irabazi arren, emaitza kaxkarra lortu zuten Bergarako neskek. Bi taldeek maila eskasa erakutsi zuten partiduan nahiz eta Bergarak ozta-ozta irabazi. Dabid Urbinaren aginduetara dagoen taldean, jokalari asko lesioak jota dago eta ondorioz asteburuan kadete mailakoek igo behar izan zuten partidua jokatzeko. Hala ere sei jokalari besterik ez ziren izan. Asteburu honetako partiduan bost bakarrik arituko dira, Johana Rocha lesionatu egin baitzen.

## *EDURNE ZABALETA / Xake taldeko kidea*
## *"Xakea, zientzia kirola dela uste dut"*

**Beste kirol asko egin dituen arren, Xakearen inguruko interesa duela hamabi urte piztu zitzaion eta gaur egun, estatu mailako epailea da. Une honetan, xakean dabiltzan gaztetxoekin ari da lanean.**

**G.** Bergarako xake taldea zenbat mailatan ari da jokatzen?
**E.** Hiru talde daude. Lehen, bigarren eta hirugarren mailan, Gipuzkoako txapelketa jokatzen ari gara.
**G.** Zenbat jokalari federatu daude?
**E.** 80 inguru. Adin ezberdinetako jendea dabil. Ni neu gaztetxoez arduratzen naiz. Xakean aritzeko modua ezberdinak erabiltzen ditugu. Informatika, jolasak, marrazkiak...
**G.** Zer nolako maila dagoela uste duzu?
**E.** Estatu mailan ari diren 10 jokalari ditugu. Maila ona dagoela uste dut. Taldeak urte asko daramatza, 30-35 urte inguru eta jokalari onak sortu dira.
**G.** Bergaran mundu mailako txapelketa antolatu zenuten.
**E.** Bai. Datorren urteari begira, absoluto edo jubenil mailan antolatzea pentsatzen dugu. Guztia jasoko dugun laguntzaren arabera izango da.
**G.** Xakea kirola ez dela uste dute batzuk, zer deritzozu?
**E.** Zientzia kirola dela uste dut. Profesionalki ari direnak fisikoki ere gertu izan behar dira txapelketa baten aurrean. Orain dela gutxi egin zen ikerketa baten arabera, bihotz taupadak handitu egiten dira eta ondorioz pisua galtzen da. Tentsioaren eraginez, 8 kilo galtzera heldu izan dira.
**G.** Beste hainbat kiroletan ibili zara.
**E.** Gehien bat atletismoan. Estatu mailako entrenadorea eta lurralde mailako epailea naiz.



## KARTELDEGIA

**FUTBOLA**

**Bergara-Antzuola**
Bigarren mailako jubenila
Zapatua. 15:30. Ipintza

**Bergara- Beraun Touring**
Lehen mailako jubenila
Zapatua. 15:15. Agorrosin

**Bergara-Almen**
Bigarren mailako kadetea
Domeka. 10:00. Ipintza

**Bergara-Elgoibar**
Neskak
Domeka. 11:30. Ipintza

**PILOTA**

**DEBA GARAIKO BETERANOEN TXAPELKETA**
• Aldai eta Agirre
Zubillaga anaiak
• Gallastegi anaiak
Muguruza anaiak
• Igartua eta Calvo
Larrañaga eta Garitano
*Domeka. 10:00. Pilotalekua*

**Bergara-Arrasate**
Junior maila

**Bergara-Ikaskirola**
Senior bigarren maila
*Domekan12:00etatik aurrera*

**SASKIBALOIA**

**Bergara-Goierri**
Kadete mailako mutilak
Domeka. 10:30. M Lagundia

**ESKUBALOIA**

**Bergara-Arrasate**
Kadete mailako mutilak
Zapatua. 16:15. Kiroldegia

**Iraundi Bergara-Elgoibar**
Senior maila
Zapatua. 17:45. Kiroldegia

**Bergara-Goierri**
Jubenil mailako mutilak
Domeka. 10:00. Kiroldegia

# Gabonetako kirol eskaintza abenduan eta urtarrilean zehar

## Herri kiroletan oinarrituko da haurren jolas parkea

**Gabon sasoia gerturatzen doa eta urtero bezala, Udal Kirol Zerbitzuak kirol eskaintza berezia egin du. Alde batetik, abenduaren 30ean Deba Garaiko Koadrilen arteko Olinpiada jokatuko da Oñatin eta bestalde, gaztetxoendako Gabonetako jolasak izango dira igerileku eta kiroldegian.**



Bost dira Mankomunitateko Kirol Zerbitzuak koadrilen olinpiadetarako aukeratu dituen kirolak.

Deba Garaiko Koadrilen arteko Olinpiaden III. jardunaldia izango da aurtengoa. Joan zen urtean, antolatzaileek bertan behera laga behar izan zuten oso jende gutxik eman zuelako izena. Iñaki Ugarteburu Kirol Zerbitzuko teknikariaren hitzetan, "aurreko urteetan antolaketa ezberdina izan du. Olinpiadak hiru egunetan zehar egiten ziren, baina, dirudienez, jendeari gehiago kostatzen zaio hiru egunetan zehar aritzea; hori dela eta, aurten, kirol guztien jardunaldiak egun bakarrean egitea erabaki dugu. Jende gehiago animatuko dela uste dut".

### Jokatu beharreko kirolak

Igeriketa, esku pilota, hockeya, saskibaloia eta sokatiran aritu beharko dira bertan parte hartuko duten koadrilak. Igeriketa izango da lehendabiziko proba. Ondoren, esku pilota partiduak jokatuko dira binaka eta lau t'erdiaren barruan. Pilota goxoekin jokatuko dira partiduak 16 tantura. Hockeyari dagokionez, partidu bakoitzak15 minutuko iraupena izango du eta kanporaketa sistema erabiliko da. Saskibaloiaren txandan ez dira partiduak jokatuko, hiruko jaurtiketen lehiaketa baizik. Jardunaldia amaitzeko, soka-tira proban, zortziko taldeetan banaturik, koadrila bakoitzak hiru tiraldi egin beharko ditu.

Olinpiadan parte hartzeko, abenduaren 19a baino lehen Udal Kirol Zerbitzuan eman beharko da izena. 16 urte baino gehiago izan behar dira eta talde bakoitzak, gutxienez, 8 partaide eta, gehienez, 12 izango ditu. Izen-ematea 4.000 pezetan jarri da eta sariak, 70.000, 35.000 eta 20.000 pezetakoak dira.

### Gaztetxoentzako eskaintza

Abenduaren 28, 29 eta 30ean gaztetxoenek izango dute non aritu. 28 eta 29an 10:30etatik 13:30etara, igerilekuetan hainbat haur jolas izango dira. Bestalde, hiru egunetan zehar eta arratsaldeko 15:30etatik, 18:30etara kiroldegia jolas parke bilakatuko da. Aurten polikiroldegian izango diren jolasak herri kiroletan oinarrituko dira. Sarrera 200 pezeta izango da eguneko. Hiru egunerako bonoa nahi izanez gero, gaztetxoek 500 pezeta ordaindu beharko dute. Haurrekin hurbilduko diren gurasoak, futbolinean eta dardoetan aritzeko aukera izango dute.

**_Aurreko urteetan bizpahiru egun irauten zituen arren, aurten koadrilen arteko olinpiadak egun bakarrean jokatuko dira_**

Horretaz gain, pala txapelketa, esku pilota txapelketa eta tenis txapelketaren finalak ere Gabonetan jokatuko dira. Eskaintza bereziaren azken txanpa, Iñurrategi anaien azken irteerako diapositiben erakustaldiarekin helduko da. Emanaldia, urtarrilaren 8an izango da Nobedades aretoan, arratsaldeko 19:00etan. B

# Rachael Olabarria Espainiako txapelketan

Rachel Olabarria Espainiako Futbito txapelketa jokatzen aritu zen joan zen asteburuan. Hiru egunetan zehar eta gipuzkoako selekzioarekin, Galizia, Aragoi eta Arabako selekzioen kontra jokatu zuen Gasteizen. Guztira lau selekzio izan dira Espainiako futbito txapelketan eta gipuzkoarrak hirugarren sailkatu ziren. "Lehen partidua, zapatuan, Aragoikoen kontra jokatu genuen. Oso maila handiko neskak gerturatu ziren Gasteizera. 5-3 irabazi ziguten. Domekan galiziarren kontra jokatu genuen eta hau ere ez genuen irabazterik izan. 4-1 egin genuen markagailuan". Astelehenean arabarren kontrako partidua izan zen gipuzkoarrak irabazi zuten bakarra 4-1eko emaitzarekin. Joan zen urtean gertatu zen bezala, Galiziakoek eraman zuten txapela etxera. "Hirugarren gelditu arren oso esperientzia polita izan da. Lagun asko egin ditut. Egia da nekaneka eginda amaitu nuela baina merezi izan zuen". Une honetan Bergarako Lagunak futbito taldearekin jarraituko du jokatzen. Ekain aldera, Euskadiko txapelketan izango da, berriz ere Gipuzkoako selekzioarekin eta Aste Santuan, Euskadiko selekzioarekin Zarautzen antolatuko den autonomien arteko txapelketa jokatuko du. B



## ESKOLA KIROLA. Karteldegia

**FUTBOLA**

**Infantil mailako neskak:**

**10:00:** Aranzadi- San Viator

*Ipintzan*

**PILOTA**

**Alebin mailako mutilak:**

**09:30:** Aranzadi 10, M Lagundia A, Aranzadi 11

**10:30:** M Lagundia B, Aranzadi 9, Aranzadi 12

**11:30:** Aranzadi 8, Aranzadi 13, San Martin

**Alebin mailako neskak:**

**12:30:** Aranzadi 14, San Martin, Aranzadi 15

*Denak Zabalotegiko pilotalekuan*

**ESKUBALOIA**

**Benjamin maila:**

**10:00:** San Martin B-M Lagundia E

**10:00:** Aranzadi 1-M Lagundia A

**11:00:** Aranzadi 4-Aranzadi 6

**11:00:** M lagundia D-Aranzadi 5

**12:00:** Antzuola A-Aranzadi 3

**12:00:** M Lagundia B-Antzuola B

*Aranzadi Ikastolan*

Atsedena:

San Martin A eta Aranzadi 2

**Infantil mailako mutilak:**

**10:00:** Aranzadi-Zuazola1

**11:00:** Aranzadi-Aozaraza

*Labegaraietan*

## Pala txapelketako finala zapatuan

Bihar, zapatua pala txapelketako finala jokatuko da Osintxuko pilotalekuan. Finala, Andonegi eta Ricok, Alberdi eta Agirrebeñaren kontra jokatuko dute eta hirugarren eta laugarren postuetarako, Etxaniz eta Iruretak Urigoitia eta Manceboren kontra. Finala, eguerdiko 12:30etan izango da. Hirugarren eta laugarren postuetarako partidua 11:30-etan jokatuko da.

ARDATZA
Brikolaketa
Ateak eta zokaloak
Horma armairuak
Sarrailak eta manilak
Koadroen enmarkazioak
Era guztietako moldurak
Apalak
Kajoiak
Masterreka 4 behea
☎ 943 76 18 93

AZPEITXI
Jatetxea
Aranerreka 13 behea ☎ 943 76 55 00

Irizar 2
☎ 943 76 14 95
JAUJA KIROLAK

Txamonix taberna
Bolu 30, behea. BERGARA. Tf. 943 76 44 49

KAFETEGIA
KAIXO
Zurradero, 4. BERGARA. Tf. 943 76 72 38

PINTXOAK eta asteburuetan eta jaiegunetan RABAK!
Eta orain, zatoz REALAren eta ATHLETICaren partiduak ikustera!

# Iragarki sailkatuak

Iragarkia DOAN jartzeko, zatoz Berrigarara edo deitu telefonoz, 943 76 03 97, eguazten eguerdia baino lehen. Berrigarak ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

***Zure iragarkia ia 16.000 lagunek irakurri dezakete!***

**1. ETXEBIZITZAK**
Saldu
Erosi
Errentan emateko
Errentan hartzeko
Etxe konpartituak
Bestelakoak

**2. GARAJEAK**
Saldu
Erosi
Errentan emateko
Errentan hartzeko
Bestelakoak

**3. LOKALAK**
Saldu
Erosi
Errentan emateko
Errentan hartzeko
Bestelakoak

**4. LANA**
Eskaintzak
Eskaerak
Bestelakoak

**5. IRAKASKUNTZA**
Eskaintzak
Eskaerak
Bestelakoak

**6. AUTOAK/ MOTOAK**
Saldu
Erosi
Bestelakoak

**7. ANIMALIAK**
Saldu
Erosi
Bestelakoak

**8. DENETARIK**
Saldu
Erosi
Eman
Hartu
Trukatu
Galdu
Aurkitu
Bestelakoak

**9. HARREMANAK**
Agurrak
Kontaktuak
Deiak
Bestelakoak

## 1. ETXEBIZITZAK

### Saldu

Osintxu. 943 76 49 74.

S. Lorentzo. 943 76 31 16.

Pisu amueblatua San Lorentzon. 943 76 21 63.

Pisu amueblatua Basarten. 943 76 21 63.

Aranerreka. 943 76 32 90.

S. Arrieta. 943 76 47 86.

Bolu. 943 76 01 80.

Toki-Eder. 943 76 51 33.

Aranerreka. 910 091 861.

Matxiategi (garajearekin). 943 76 08 51.

### Errentan hartzeko

Bi neskak pisu bat hartuko genuke alokairuan Bolun: 943 76 56 03.

Pisua hartuko genuke alokairuan: 945 46 58 36.

## 2. GARAJEAK

### Saldu

Garajea salgai Boni Laskurainen. 943 76 47 86.

B. Laskurain. 943 76 17 84.

Garajea salgai Matzerrekan. 945 23 48 07.

Artzamendi. 943 76 06 25.

Aranerreka. 943 76 28 07.

Garajea saldu edo alokatzen da. 943 76 40 03.

Zurradero. 943 76 02 89.

Garajea salgai Kruz Gallastegin. 943 76 27 61.

Garaje bikoitza S. Lorentzon. 943 76 58 00.

Ibargarai. 943 15 15 81.

S. Antonio. 943 76 15 37.

Ibargarai. 943 76 72 17.

Ibargarain salgai edo alokairuan. 943 76 20 07.

### Errentan emateko

Bolu. 943 76 55 26.

Poligonoa. 943 76 32 58.

Garajea alokairuan Poligonoan. 943 76 21 12.

### Errentan hartzeko

Garajea alokairuan hartuko nuke Zubietan. Deitu 943 76 47 50 telefonora (Jabi).

Garajea alokatuko nuke. Deitu 943 76 05 17 telefonora.

## 3. LOKALAK

### Saldu

Lokal komertziala herri erdian. 100-300 m² bitartekoa. 943 79 11 71.

### Errentan emateko

100 m²ko lokala alokatzen da Kruz Gallastegin. 943 76 11.

Taberna-jatetxea alokairuan. 943 76 41 71/ 76 37 80 (gauez).

## 4. LANA

### Eskaintzak

Helduak zaindu edo etxeko lanak (astebukaeran). 943 76 50 46.

Emakume bat etxez etxe plantxatzeko eskaintzen da. 943 76 26 73.

Neskak haurrak zaindu edo denda/bulego batean lan egingo luke. 943 76 26 82/76 57 34

Neska batek, goizez, haurrak zaindu edo etxeko lanak egingo lituzke. 943 76 46 07.

Esperientziadun neska batek helduak zainduko lituzke. 943 76 32 16.

Neska bat edozein lanetarako prest. 943 76 35 38.

Erizain titulatuak gaixoak, zaharrak edo haurrak zainduko lituzke. 943 76 37 99.

Etxeko lanak egin edo umeak zainduko nituzke egun erdiz. 943 76 25 81

### Eskaerak

Andre bat behar da, egun osoz, pertsona edadetu bat zaintzeko. 943 76 47 76.

Emakume bat behar da umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko. 943 76 70 33 (gauez).

Neska euskalduna behar da goizez haurrak


**POL-POL**
**Taberna**
☎ 943 76 07 78



Kizkur
Ileapaindegia
Estetika
Solariuma



Bolu 51. Bergara. 943 76 50 32

BIZKOTXOAK, ERREILENOAK ETA TOSTOIAK
Larrañaga
San Pedro,9-Telefono.761051
R.S.I. 209374-SS
BERGARA
*Gozogintzan aintzindari.*

**Lanerako gogoa daukan ZERBITZARI EGITEKO NESKA behar da**

Telefonoa:
943 76 22 68

**ZUBIAURRE**
aroztegia

- Aulki eta mahaien erakusketa eta salmenta.
- Sarrerarako eta barrurako ateak.
- Neurrira egindako horma-armairuak.
- Tarima eta parketak.
- Zurezko leihoak.
- Era guztietako arotz-lanak.

Zubiaurre 2, Bergara.
Tf. 943 76 15 14 / 943 76 35 73

zaindu eta etxeko lanak egiteko. 943 76 01 17.

Umea zaindu eta etxeko lanetarako pertsona bat behar da Antzuolan. 943 76 65 00.

**5. IRAKASKUNTZA**

**Eskaintzak**

Filologia ingelesean lizentziatuak ingeles klaseak ematen ditu. 943 76 30 28 (Ana).

Lizentziatuak mate, fisika eta kimika klaseak. 943 76 70 40.

Majisteritzan diplomatuak klaseak ematen ditu. 943 76 10 17 (Rosa).

Soprano profesionalak kantu klaseak ematen ditu. 943 76 65 24.

OHO eta BBB klaseak. 943 76 33 26.

Ingeles klaseak. 943 76 25 79 (Nuria).

Majisteritzako ikasleak OHOko klaseak ematen ditu. 943 76 37 94.

OHO eta BBBko 3. mailara arte. 943 76 32 93.

Lizentziatu batek italiera klaseak eman edo itzulpenak egingo lituzke. 943 76 65 24.

**Eskaerak**

Italiera klaseak jaso nahi nituzke. 943 76 64 14 (Eva).

**6.AUTOAK/MOTOAK**

**Saldu**

Aprilia Climber 91 motorra salgai. Deitu 943 76 07 28 telefonora (Ion).

Nissan Serena (diesela) furgoneta. 1.250.000 pezeta. 630 78 10 96.

Peugeot 306 (SS-AV) salgai. 943 79 78 32.

Rover 216 (NA-W). 943 72 63 47 (Angel).

Alfa 33 1.7 i (SS-AK). Aire egok.. 943 79 75 11.

Opel Ascona 1.600 (SS-W) salgai. 943 76 05 13.

Volkswagen Caravelle furgoneta (VI-M) salgai. 943 79 97 35.

Fiat Tipo (SS-AJ) kotxea salgai. 943 76 50 05.

Ford Sierra (SS-S) salgai. 943 76 18 28.

**7. ANIMALIAK**

**Erosi**

Cocker txakurkume gorria erosiko nuke (pedigrearekin). 943 76 12 86 (Mari Carmen).

**8. DENETARIK**

**Saldu**

Holton tronpeta salgai, (75.000 pta). 943 76 48 23.

Deshumifikadorea salgai. 943 76 00 85.

Pentium-multimedia ordenagailua eta Deskjet inpresora salgai. 907 34 46 58.

Elurretako kateak Citroen AXerako. 943 76 08 25.

Arrantzarako katiuska luzeak (40 zenbakia) salgai. 943 76 26 84.

Super Nintendoko jokuak eta mandoak salgai. 943 76 10 93.

Jaio berriarentzako kapota kotxea. 30.000 PTA. 943 76 15 40.

Snowboard taula eta fijazioak salgai. 1,52 m. 45.000 pta. 943 76 15 35.

Kerosenozko estufa salgai. 943 76 02 92.

Edesa termo elektrikoa (30 l.). la berria, 10.000 PTA. 943 76 07 50 (Maite).

Super Nintendoa (5 joko) salgai. 943 76 49 38.

Bueltako tresilloa (tapizatua). la berria. 943 76 12 86.

Super Nintendo kontsola jokoak eta mandoak. 943 76 10 44.

Super Nintendoa (5 joko) salgai. 943 76 00 85.

Nintendo kontsola, mando bat eta joku bat. Deitu 943 76 38 71 telefonora.

**Erosi**

Laminadun eta hankadun somierra (1,35 m.koa) erosiko nuke. 943 76 04 57.

Musika disko singleak erosten ditut. 943 52 65 77.

**Galdu**

Reebok motxila eta 4. mailako liburuak eta karpeta galdu nuen Plazan. 943 76 44 95.


Langai
Euskal Lan Zerbitzua

*INJINERU TEKNIKOA* Deba Behea. 13873/1
*INJINERU TEKNIKOA* Donostia. 14814/4
*ESTETIZISTA-FISIOTERAPEUTA* Gasteiz. 14595/2
*SUKALDARIA* Amorebieta. 14723/2
*INJINERU TEKNIKO INDUSTRIALAK* Deba Garaia. 15227/1
*MANTENIMENDURAKO TEKNIKARIA* Ibai ezkerraldea. 13474/7
*TROKELGINTZAKO 2 PIOI* Plentzia-Mungia. 15072/2
*GORTINA-EGILEA* Arabako Lautada. 13694/5
*HARAKINA* Bilbo. 14925/2
*IGELTSEROA* Arabako Lautada. 13815/5
*ILEAPAINTZAILEA* Deba Garaia. 14983/1
*FRESATZAILEA CNC EZAGUTZAILEA* Durangaldea. 14331/3
*JANGELARAKO ZERBITZARIA* Ibai eskuinaldea. 14970/7
*EHUN-HEDATZAILEA* Bilbo. 14490/1

**Lan eskaintza hauetakoren bat interesatzen bazaizu, erreferentzia hartu eta eskatu informazioa.**

LANGAI Udaletxean: astelehen, eguazten eta eguakitzetan 9:00etatik 13:00etara.
Telefonoa: 943 77 91 65, Maria Jesus Unamuno.



IRURAK PINTURAK O.E.
ERA GUZTIETAKO LANAK — PAPER PINTATUAK
MOKETA ETA SINTASOLA — HAREA ZORROTADA
IZTUKU ESPONJATUA — IZTUKU FALTSUA
AITZITURRI 6 • 286 POSTA KUTXA • 20570 BERGARA
TELEFONOA eta FAXA: 943 76 09 32



Gaspar
JATETXEA, TXOKOLATEGIA, SELF-SERVICE-a
Barrenkalea 31 — Tf. 943 76 20 02 — BERGARA



BINILO FESTA '80

d.j. charli
Abenduaren 12an 22:00etan
BINILOAK BAKARRIK
NAHIKARI taberna
Masterreka 20 Tf. 943 76 57 71

# Harrera ona Bergara eta Antzuolako liburuek

## Juan Martin Elexpuru Durangoko azokan gehien saldu dutenen artean

**Udaleko Euskara zerbitzuko arduradunak pozik azaldu dira Durangoko azokan jarritako salmenta postuak izan duen erantzun onarengatik. Arazo logistikoak alde batera lagata, Eibarko Udalarekin batera jarritako stand-ean ondo saldu dute.**



Bergarako Udalak Durangon jarritako salmenta postuak harrera ona izan du euskara zerbitzutik adierazi digutenez.

Bergarako Udalak hirugarren aldiz jarri du aurten salmenta postua Durangoko liburu eta diskoen azokan. Aurten, Eibarko Udalarekin batera.

Estepan Plazaola Euskara Zerbitzuko arduradunak BERRIGARAri adierazi dionez aurten argitaratutako liburuak izan dira ondoen saldu direnak. Jardunek argitaratutako "Maitasunez..., amodiozko gutunak 1993-1998 eta piropoak" liburuaren 37 ale saldu dira; Bergara aldeko berbak eta langintza zaharrak bildumako bigarren liburuak, joan zen irailean kaleratu zen "Txondorrak. Karobiak. Elurzuloak", ostera, 33 ale saldu ditu eta "Antzuolako hizkera", Jone Larrañagak Antzuolako berbei buruz egindako lanak, 27 ale saldu ditu. Ondo saldu diren beste batzuk: "Bergara 1926" Azkona anaien bideoa edota "Linua. Ehuna. Artilea" Jasone Isazelaiarena.

Bestalde, Juan Martin Elexpururen azken liburua, "Krabelina beltza" nobela erotikoa, azokako salduenetako izan da. Txalaparta argitaletxekoek emandako datuen arabera, liburu honen mila ale inguru saldu dituzte. B


Liburutegiko txartela besterik ez da behar konpaktoak etxera eramateko.

## Disko konpaktoak Udal liburutegian

**Udal Liburutegiak** bi sail berri ditu: disko konpaktoena eta bideo zintena. Beraz, liburuez gain, diskoak eta bideoak ere eraman daitezke etxera. Euskal musikako 70 bat disko konpaktoren artean aukeratzeko dago; estilo guztietakoak, lehengo talde edo bakarlarienak zein gaur gaur egungoak. Bideo zintei dagokienez, luzemetraiak, euskal produkzioak eta dokumentalak aurki daitezke; 80 ba denak euskarazkoak.

Bai diskoak eta bai bideoak zortzi egunetarako eraman daitezke etxera eta aldi bakoitzeko bakarra eraman daiteke. Liburuak, berriz, 1 egunetan eduki daitezke etxean. Nagusiek bi liburu eraman ditzakete aldi bakoitzeko; haurrek, berriz, hiru.

Garnish
Bitxitegia
Zapatu arratsaldeetan IREKITA!
San Pedro 12 ☎ 943 76 03 57

LASAGABASTER
ZURE KONFIDANTZAKO DENDA.
Zerkaosteta 1 eta 2 ARRASATE Tf. 943 79 27 27 / 943 79 13 55

erakusketa

# Kiroleko pertsonaien argazkiak

## Benito Cantero eta Agustin Gurrutxagaren lanak

**"Bergarako Kirol Munduko Pertsonaien Argazki Erakusketa" joan zen eguakitzean zabaldu zen Kultur Etxean. Benito Cantero eta Agustin Gurrutxaga Pol-Pol Argazki Taldeko kideek ateratako argazkiak ikus daitezke bertan domekara arte. Erakusketa Udal Kirol Zerbitzuak antolatu du.**

Laster beteko dira 10 urte Udaleko Kirol Zerbitzua abian ipini zutenetik. Urte hauetan, herrian kirolaren munduan lanean dabiltzanekin harremanetan izan dira kirol zerbitzukoak eta erakusketarekin omenaldi bat eskaini nahi izan diete herriko kirola posible egin duten guztiei, "nahiz eta jakin argazki hauetan gutxi batzuk besterik ez daudela. Askoz ere gehiago dira omenaldia merezi dutenak, baina aretoaren eta giza baliabideen mugek, erakusketa hau prestatzeko aukera eman digute" esan digu Xabier Zabaleta kirol zinegotziak.

Erakusketan 39 argazki ikus daitezke, guztiak, herriko kirolariei edo kirol arloan herrian lanean dihardutenei ateratakoak. Erretratatutako pertsonaiak beren kirol arloetan girotuta agertzen dira.

Zuri-beltzeko argazkiak dira, baina Canterok eta Gurrutxagak teknika ezberdinak erabili dituzte eta batzuk koloreztatuak daude. Argazkiak herriko udal kirol instalazioetan jarriko dituzte. Helere, erakusketaren inaugurazio ekitaldian kopia bana banatu zitzaien erretratuetan agertzen direnei. B



Nuria Rodriguez aerobic irakaslearen argazkia ere ikus daiteke Kultur Etxeko erakusketan.

salduenak / **azaroa**

## LIBURUAK

**Euskaraz**

1. BANBULO 1
   Bernardo Atxaga. Erein
2. TENTAZIOAK
   Jasone Osoro. Elkarlanean
3. EUSKAL ZIBILIZAZIOA
   Gaiak
4. LAINO
   Miguel de Unamuno. Elkarlanean
5. SAMURAI BERRIA
   J.M. Velez de Mendizabal. Elkarlanean

**Erdaraz**

1. COMIDA SANA PARA SABER VIVIR
   Roselló/Torreiglesias. Plaza & Janes
2. EL SOL DE BREDA
   Arturo Perez-Reverte. Alfaguara
3. EL HEREJE
   Miguel Delibes. Destino
4. UN SACO DE HUESOS
   Stephen King. Plaza & Janes
5. PURA VIDA
   Jose Maria Mendiluce. Planeta

*Iturria: Etxepare-Bilintx, Peñalba*, Zangitu

## DISKOAK

1. AHUEN SINFONIKOA
   Benito Lertxundi
2. LUNA NUEVA
   Rosana
3. TUBULAR BELLS III
   Mike Oldfield
4. THE BEST OF 1980-1992
   U2
5. DABILEN HARRIA
   Ruper Ordorika
6. PARADISU ZINEMA
   Joxe Ripiau
7. MY LOVE IS YOUR LOVE
   Whitney Houston

*Iturria: Etxepare-Bilintx, Zaiazko*

IBARGUREN PENTSUAK
BIONA pentsuen biltegia,
BIOTER produktuak,
haziak eta bestelako nekazal produktuak
Biona BANATZAILEA
San Pedro 3 Tf. 943 76 23 79

Amillaga, gasolindegi ondoan. Tf.: 943 76 57 34
ZABALETA
ERROTULOAK
Mota guztietako errotuloak
Fatxadak, eskaparateak...

## denborapasa / LUMA

| 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 6 | 7 | 8 | 9 | 10 |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 2 | | | | | | | | | |
| 3 | | | | | | | | | |
| 4 | | | | | | | | | |
| 5 | | | | | | | | | |
| 6 | | | | | | | | | |
| 7 | | | | | | | | | |
| 8 | | | | | | | | | |
| 9 | | | | | | | | | |
| 10 | | | | | | | | | |

### Ezker eskuma

1. Esperantza. 2. Maisua denaren nolakotasun. 3. Uhartea. Modua. Lehenengoa. 4. Nitrogenoa. Siberiako ibaia. Bizkaieraz, enara. 5. Filipinetako talde etniko bateko kide. Martxa du. 6. Galdetzaile bat. Ugaztun-mota. Potasioa. 7. Beldurtiak. 8. Oxigenoa. Musika nota. Ipurtzuloa. 9. Jakintsuak. Musika nota. 10. Suari dariona. Hunkitua.

### Goitik behera

1. Keinuak. 2. Jatorri atzizkia. Euskaraz eta kitto! Hirugarren hizkia. 3. Zura grabatzearen artea. 4. Aitalehena. Norat atzizkia. 5. Rutenioa. Biloa. Bokal errepikatua. 6. Duda partikula. Baratzeak. 7. Bikoiti. Bikoitz. 8. Perpausak. Tona. 9. Ba..., baneuka. Lehenengo eta laugarren bokala. Begi batetik sortutako adaska berria. 10. Nebak. Gipuzkoako herria.

*Soluzioa*

*Ezker eskuma*

*Itxaropena. 2. Maitasun.*
*Irla. Era. A. 4. N. Obi. Elai.*
*Tagalo. Doa. 6. Zer. Erbi. K.*
*Ikaratiak. 8. O. Fa. Uzkia.*
*Adituak. Mi. 10. Kea. Ukitua.*

*Goitik behera*

*Imintzioak. 2. Tar. AEK. De.*
*Xilografia. 4. Asaba. Rat.*
*Ru. Ilea. Uu. 6. Ote. Ortuak.*
*Pare. Bizki. 8. Esaldiak. T.*
*9. Nu. Ao. Kimu.*
*10. Anaiak. Aia.*

## bonofotoa






Miguel Angel Elkoroberezibar

**Zein elizatako atea dugu ezkerrekoa eta zein ermitaren aurrealdeko horman irakur ditzakegu argazkiko hitzak?**

## galde debalde

**Arretaz irakurri duzu Berrigara? Ea galdera hauei erantzuten diezun!**

1. Noiz omenduko dute Jose Antonio Zabala zena Bergarako Udaletxean?
A- Abenduaren 11n
B- Abenduaren 16an
C- Abenduaren 18an

2. Azken lau urteotan Deba Beheko Mankomunitatean zenbat txakur jaso zira[?]
A- 1.700 inguru
B- 700 inguru
C- 800 inguru

3. Zein da azaroan Bergaran gehien saldu den liburua?
A- Banbulo 1
B- Tentazioak
C- Samurai berria

*Jarri Bonofotoko eta Galde Debaldeko erantzunak behean eta asmatzen dituzuenon artean afari ederra zozketatuko du BERRIGARAK. Aste honetan irabazten duenak eta berak aukeratutako lagunak Antzuolako* ***Leku-Berri*** *merenderoan izango dute afaria.*



Aurreko aleko saria, **Irene Agirre**rentzat izan da: Sirimiri jatetxean bi lagunendako afaria. Zorionak Ireneri! Galderen erantzun zuzenak hauek ziren:
Bonofotoa: **Ibarra kalea, 1987 urtea**
Galde Debalde: **1-A, 2-A, 3-B**

**BONOFOTOA** ____________________

**GALDE DEBALDE** 1: ____ 2: ____ 3: ____

Izena-deitura: __________ Telefonoa: __________

*Ekarri edo bidali txartela* ***EGUAZTEN EGUERDIRAKO*** *Berrigarara! AFARI EDERRA IRABAZ DEZAKEZU!*

**LEKU-BERRI MERENDEROA**

Irimoegi behekoa z/g, ANTZUOLA
Tf. 943 76 60 94

**27 urte ditu eta bost bat urte daramatza Zangitu margo dendan eta Deco-Tex Zangitu dendan lanean. Gizarte graduatu ikasketak egin zituen Bilbon, baina familiako dendetan ibili da beti. Hernanin beste bi denda eta Arrasaten beste bat dute.**

# Yasone Zangitu

**Gehien atsegin duzun kolorea?**
Urdin iluna. Gutxien, ostera, arrosa.
**Ze koloretakoa ikusten duzu bizitza?**
Batzuetan gris iluna eta beste batzuetan, baikorrago nagoenean, kolore argitsukoa.
**Etxeko geletako paretak apaintzeko, paper-margotua ala pintura?**
Biak, gelaren arabera, baina paper-margotuak gustatzen zaizkit: arraidunak, lisoekin konbinatuta eta zenefa batekin banatuta.
**Logela ze kolorez margotuko zenuke?**
Ori okrez edo berde pistatxoz.
**Zein da zure horoskopoa?**
Gemini. Pertsonalitate bikoitzekoak ei gara. Nire kasuan betetzen dela uste dut.
**Animalia bihurtzekotan?**
Izurdea.
**Zerk lotsarazten zaitu?**
Publikoaren aurrean agertzea eta era honetako elkarrizketak.
**Amets bat?**
Munduan goserik ez egotea. Bestalde, ametsetan asko egitekoa naiz.
**Musikarik entzuten duzu? Non?**
Ez gehiegi, batez ere tabernetan-eta. Denetik entzuten dut, klasikoa, bakailaua.
**Zer egiten duzu asteburuetan?**
Jeneralean, kalera irten, taberna zuloan egon eta azken orduan diskotekara joan.
**Bakailau musika gustuko?**
Bai, dantzan egiteko batez ere.
**Etxean edo autoan entzuteko, ala diskoteketan dantzan egiteko?**
Diskoteketan batez ere. Parrandan goazenean autoan ere bai.
**Egin dizuten oparirik politena?**
Ahizpak erregalatu zidan ispilu bat.
**Etxeko lanak egiten dituzu?**
Bai, baina ez gehiegi. Erropak eskegi eta plantxatzea dira lanik gorrotagarrienak.
**Perfumerik erabiltzen duzu? Zein?**
Gogoratzen naizenean bakarrik. Dolce & Gabbana gustatzen zait.
**Zure gorputzeko atalik gustokoena?**
Ilea beharbada..., eta bernak-edo.
**Mutiletan, zertan fijatzen zara?**
Lehenbizi aurpegian.
**Gizakian gehien baloratzen duzuna?**
Leialtasuna.
**Kirolik egiten duzu?**
Azkenaldian ez. Iaz aerobic-ean ibili nintzen, saskibaloian jokatzea gustatzen zait...
**Ikusteko kirol bat?**
Futbola, Realekoa naiz. Boxeoa, berriz, ezin dut ikusi, ez zait batere gustatzen.
**Zerbaitegatik emango zenuke bizitza?**
Une honetan ez.
**Loterian jokatzen duzu?**
Oso gutxi, Gabonetan batez ere.
**500 milioi irabaziz gero zer egingo zenuke?**
Bidaiatu eta kostaldean txaleta erosi.




**INGELES**
**IKASTARO INTENTSIBOAK**
**FRANTSESA**
**ALEMANA**

**Urtarrilaren 18tik martxoaren 26ra.**
- BI HILABETE ETA ERDIKO IRAUPENA.
- EGUNERO BI EDO BI ORDU ETA ERDI.
- GOIZEZ NAHIZ ARRATSALDEZ.

ETA BESTE HAINBAT IKASTARO ERE BAI

HIZKUNTZ ESKOLA BERGARA

**INFORMAZIOA:**
**Bergarako UNED. S. Martin plaza z/g (3. pisua)**
**☎ 76 06 87**

**Matrikula-epea abenduaren 9tik 22ra!**
Bulego ordutegia: 10:30-13:00 eta 16:30-19:30.



# *Lagun koadrila, 1945*

Dotore jantzita eta ondo orraztuta ageri zaizkigu gaztetxo hauek, lagun arteko futbol partidu baten atarian. Erretratua 1945. urtekoa da eta Agorrosin futbol zelaiaren ondoan aterata dago. 1920. urte aldera hasi zen lehen aldiz Agorrosin erabiltzen. Horren aurretik Zurragan eta Torrekoan ei zeuden Bergarako futbol zelaiak. 1952. urtean Bergara Kirol Elkartea (Club Deportivo Bergara orduan) sortu zen eta Agorrosingo zelaiak erosi ondoren, bertan gaur egun ezagutzen dugun futbol zelaia egin zen. Inaugurazioa 1953ko urriaren 12an izan zen. Aurretik herriko gaztetxoak aritzen ziren bertan futbolean eta praka eta bota mordo ba apurtuko zituzten baloiari ostikoka. Esan bezala, goiko argazkia 1945. urtekoa da; urte hartan Agorrosinen lehen egurrezko hesiak jarri omen zituzten. Argazkikoak honako hauek dira, ezkerretik eskumara:

**Zutik:** Joseba Rementeria, Manolo Moreno, Antoni Etxeberria “Amerikano” eta Jose Man Igartua.

**Makurtuta:** Josu Mujika, Jabier Larrañaga eta Josu Lazpiur.

*Argazkia: Joseba Rementeria*

DENA 100etik
ZURE OPARIENTZAKO
Simon Arrieta 3

MEMESA
INDUSTRI HORNIDURAK
Tf. 943 71 24 25

Zumelaga
JATETXEA
ZERBITZU, KALITATE, KANTITATE ETA PREZIOAN PAREKORIK EZ!
San Antonio 5 BERGARA ☎ 943 76 20 21

# Gidari onenek

# OHOREZKO-MATRIKULA

# merezi dute

## Aldatu zaitez MAPFREra

## Azkartu  itzazu zure bonifikazioak

**Orain** zure automobilaren asegurua aldatzea **ez zaizu ezer kostako.**
**Mapfreren Ohorezko Matrikula Planarekin,** oraingo polizaren antiguedadeari eutsiko diozu (95.1.1. baino lehenago edozein konpainiatan kontratatutako polizetarako baliagarria).
Lor ezazu **bonifikaziorik haundiena denborarik motzenean.**

**MAPFRE**

Argibideak: Simon Arrieta plaza 3, Bergara. Tf. 943 76 18 80.

# ELUSU ERAIKUNTZAK

- **ERA GUZTIETAKO ERAIKUNTZAK**
- **ERREFORMAK**
  - Teilatuak
  - Fatxadak
  - Sukaldeak
  - Bainuak

BASERRI eta JAURETXEEN ERREFORMETAN eta TXALETEN ERAIKUNTZAN espezializatuta gaude




## Bulego aldaketa egin dugu

**ORAIN Arruriaga 5ean gaude!**
**Tf. 943 76 45 50. Faxa: 943 76 51 45**

# centro hogar MUEBLES



a, eme interiores

sukaldea



Sofa leku

GRUPO

Amuebladora Mondragonesa

C/ Zigarrola, 1 pab. 6-10 • C/ Garibai, 9 • 20.500 ARRASATE

Tel. 943.791503 - 943.771492 • Faxa 943.791498